

TOKIKOM

# karkara

**Oriko eta Aiako aldizkaria**  
2011ko maiatzaren 20a  
299. zenbakia. 23. urtea



## Herriarena da hitza

Mahai inguruan EAJ, Bildu, Orain eta PP izan ziren beren alkategaiekin protagonista, baina herritarrek aukeratuko dute maiatzaren 22an

**05**

**Herriko Kontuak**  
Azken udalbatzarra

**08**

**Kirolak**  
Futbola bukatzeaz

**10**

**Aiako berri**  
Auto lasterketa

**31**

**Iritzia**  
Iñigo Gaiton



# bildu aia

[www.bildu.info](http://www.bildu.info)  
[www.facebook.com/bilduaia](https://www.facebook.com/bilduaia)  
[www.bilduaia.blogspot.com](http://www.bilduaia.blogspot.com)



Sustraitik hasiz, kimuak zainduz... **Aia Loratu**



# orain

oriko aukera independentea

**oriotarron garaia da**  
**orain duzu aukera**



## Borrokan tinko

### 1

Bizi guztia lanean  
beti gerokon pentsatzen  
eta iritsi ta gero,  
ez dugu ezer ulertzen.  
Jubilatu ta alargunak  
nola gaituzten bazterten.  
Eta Madriren eroso  
gure kaxatik lapurtzen.

Hitz politekin ez degu  
pentsio duinik lortzen,  
eta ez dugu lortuko  
ez badugu borrokatzen.  
Hortik gure deiadarra  
LABeko kideei zabaltzen:  
asko gera Euskal Herrian  
ta hasi gaitezen biltzen.

# 299

## karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur etxea**  
20810 Orio  
943 83 15 27  
karkara@karkara.com

**Editorea**  
Karkara taldea  
kultur elkarte  
**Zuzendaria**  
Ana G. de Txabarri  
**Erredakzio burua**  
Irati Agirreazaldegia  
**Erredakzio taldea**  
Pat Cowie,  
Miren Etxeberria, Iker  
Gurrutxaga, Eli Lasa eta  
Jabier Zabaleta

**Publizitatea**  
Pat Cowie

**Publizitatearen diseinua**  
Lore Berasaluze

**Testuen zuzenketa**  
Miren Etxeberria eta  
Jabier Zabaleta

**Ale honetako laguntzaileak**  
Jon Ander Azpiroz, Iñigo  
Gaiton, Xabier Gaiton eta  
Arkaitz Iruretagoiena

**Laguntzaileak**  
Onintza Aiestaran eta  
Iñaki Iturain

**Diseinua**  
Karkara taldea

**Banatzaileak**  
Ander Beldarrain eta  
Ane Murillo (Orio)  
Eli Irureta (Aia)

**Inprimategia**  
Gertu Koop. E. (Oñati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain  
hartzeko aldizkarian  
adierazitako esanen edota  
iritzien erantzukizunik.  
KARKARAN argitaratutakoa  
berreman daiteke, osorik edo  
zatika, baldin eta iturria  
aipatzen bada.



SINADURA

### PUBLIZITATE PREZIOAK

#### Iragarkia alero jarrita

|                |          |
|----------------|----------|
| Modulu bat     | 12,00 €  |
| Bi modulu      | 24,00 €  |
| Hiru modulu    | 36,00 €  |
| Lau modulu     | 48,00 €  |
| Sei modulu     | 72,00 €  |
| Zortzi modulu  | 96,00 €  |
| Orrialde erdia | 120,00 € |
| Orrialde osoa  | 204,00 € |

#### Iragarkia behin jarrita

|                |          |
|----------------|----------|
| Modulu bat     | 16,00 €  |
| Bi modulu      | 31,00 €  |
| Hiru modulu    | 47,00 €  |
| Lau modulu     | 64,00 €  |
| Sei modulu     | 95,00 €  |
| Zortzi modulu  | 127,00 € |
| Orrialde erdia | 174,00 € |
| Orrialde osoa  | 306,00 € |

**Publizitatea kontratatzeko**  
Pat Cowierekin hitz egin  
(695 78 07 20) edo  
publizitatea@karkara.com  
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

### LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
hedabidea



## Txu-txu trena berriz

Arkupe elkarteak jakinarazi nahi dizue aurten ere txu-txu trena izango dugula Orion. Bertako eta kanpoko erabiltzaileek eskatu bezala, ia zko gidari bera eta prezioak mantenduko ditugu. Ekainaren 28an jarriko da martxan eta irailaren erdira arte luzatu nahi dugu (ez dago erabakita, luzapena negoziatzen ari gara). ■ **Arkupe Elkarte**

## Hitzarmenak

Orioko EAJren helburuen baitan, herritarren hezkuntza bikaintasuna lortzearen xedea beti izan da lehentasunezko gaia. Gaur egun bizi dugun garaian, krisi garaian, Orioren etorkizunarekin –hau da, haur eta gaztetxo oriotarrekin– dugun erantzukizuna azpimarratu nahi dugu.

Herrian ditugun lau hezkuntza zentroen eskolako eta eskolaz kanpoko programazioa hobetzeko, bakoitzarekin (Maria Maestra haurreskola, San Nicolas de Bari Haurtzaindegia, Zaragueta Eskola eta Orioko Herri Ikastola) lankidetzak hitzarmena sinatzea lortu dugu.

Hitzarmen horien iraupena 5 urtekoa izango da eta zentro bakoitzari honako diru-laguntza emango zaio urteko: Maria Maestra haurreskola, 6.000 €; San Nicolas de Bari haurtzaindegia, 5.000 €; Zaragueta Eskola, 30.000 € eta Orioko Herri Ikastola, 127.000 €. Diru banaketa, zentro bakoitzaren ikasleen kopuru eta adinak kontuan harturik egin da.

Legealdi honetan, herriko gaztetxoenen heziketan, Jon Redondo alkateak eta gure zinegotziek egindako ahalegina ondorengo ekimenetan nabaritu daiteke: Haurreskolan gela berriak sortu eta hobekuntzak gauzatu dira, Zaragueta Eskola Publikoaren instalazioetan obra esanguratsuak burutu dira eta Orioko Herri Ikastolaren eraikin berriarentzat dirua jarri da, besteak beste. Izan ere, Orioko Udala, gure zinegotziak buru, Euskadin, hezkuntza pribatu-kontzertatuari diru gehien ematen dion udal erakundea izango da.

Argi utzi nahi dugu gure borondatea beti izan dela gure herriaren etorkizunaren ardura duten hezkuntza eragileekin elkarlanean jardutea, lau hezkuntza zentroen jarraipena egin eta herrian 16 urte bitarteko hezkuntza publiko zein kontzertatua izatea bermatzea.

Eragile bakoitzak eskaini ditzakeen

aniztasun eta ñabarduren aberastasunak oriotar guztien eta, batez ere, haur eta gaztetxoenen onurarako izango delakoan gaude.

Etorkizunean, gure herritarren heziketa eta ongizatea hobetzen jarraitzea izango da gure lanaren ardatza. Azken 4 urteotan Oriok egin duen aurrerapausoa nabarmena izan da, eta oriotarren babesarekin ildo horretatik jarraituko dugu. ■ **Orioko EAJ**

## Beraz... osasuna!

Badatoz udal hauteskundeak. Oso garrantzitsuak eta erabakiorrak, gainera. Orioko herriaren osasuna baldintzatuko dute. Intoxikatutako gizarte gaixoa edo osasunean eta naturarekiko errespetuan oinarritzen den gizarte eredu bultzatzen dugun erabakiko da. Bertako barazki, arrain eta haragi osasuntsuak edo kanpotik inportatutako janariak jango ditugun erabakiko da. Pixkanaka minbiziari eta hainbat gaixotasun larriei gailendu nahian gabiltzan ala ez erabakiko da. Finean, gure eta gure ondorengoen osasuna erabakiko da.

Edukiontzietara hala-nolako zabor poltsak botatzen jarraitzeak zabor tona asko 7 km-ra erretzea ekarriko du. Jaiki orduko ikusten dugun Andatza mendira gas toxikoak, metal astunak, dioxinak... jaurtitzeko ekarriko du oraingo edukiontzietara zaborra botatzeak. Gipuzkoan, jada, Usurbil, Oiartzun, Hernani eta Antzuola hasiak dira inongo arazorik gabe osasunaren alde lanean. Etxean birziklatzen dute eta etxe azpitik igarotzen zaie egunero kamioia sailkatutako zaborra jasotzera. Harro egoteko moduan dira atez ateko sistemaren bidez zaborraren % 85 birziklatzea lortzen duten herritarrak. Gainera, lanpostu ugari sortu dute.

Beraz, zure eskuetan duzu aukera. Zero Zabor filosofiarantz gerturatzen den zaborraren kudeaketa egoki baten alde egin duten alderdiei bozkatu edo intoxikazioaren alde egin dutenei. Maiatzaren 22an eman iezaiozu bozka osasunari. ■ **Orioko Zero Zabor**

## Bihotzeko mina

Oheratu eta lokartu aurretik arratsaldean iritsi berri den KARKARA irakurri dut. Ez dut bukatu, ezin dut; bat-batean mina dut bularrean, bihotzean, hain zuzen.

Nire irakurketa 18. orrialdean amaitu da, *Torrotxoren Pronostikoak* 'bagara

eta ez bagara' idatzia irakurtzerakoan. Horrelakorik irakurri behar nuenik ere!

Amorrutik sortutako idatzia iruditu zait, eta bihotzeko mina besterik ez du sortu nigan. Min hori kentzea ez da erraza izango, baina etxeko erremedio moduan ohetik altxa eta idazten nabil.

Eusko Gudari kalean bizi naiz, duela gutxi arte *Torrotxorena* ere izan den etxepean, hain zuzen, eta ez dut kandelarik piztu Konstituzionalak Bildu hauteskundeetatik kanpo uzteko –kandelak Karmengo amarentzat jasotzen ditut– eta, are gutxiago, Sortuk biolentziaren aurkako konpromisoa adierazi zuenetik. Poztu naiz bide hori hartu duzuela esan duzunean eta bihotzari hori sinesteko gomendatzen diot; poztu naiz Bilduko zerrendan aurpegi berri eta gazteak ikusita; poztu naiz lanerako gogoz zatoztela entzundakoan. Baina orain mina, bihotzeko mina, besterik ez didazu sortu. Agian ez zaizu inportako, baina momentuz nire jarrera positiboa etetea besterik ez duzu lortu zure hitzekin eta, suposatzen dut, Eusko Gudari eta beste hainbat kaleetako askorengan ere horixe eragingo zenuela.

Lasai egin Jon, ni, izendatu ez, baina aipatu duzun zerrenda horretan bederatzigarrena naiz, eta ez naiz udalean izango; beraz, hamargarrena ere ez. Zu bai, ordea, hor izango zara, bigarrena baitzara beste zerrenda batean. Datuak horrelakoak izanda, mindutako bihotz honek sinisten du demokraziarentzat eta herriarentzat zu Udalean izatea, ni izatea baino sanoagoa dela. Baina gauza bat eskatuko dizut: zaudenean, idatzi horretan erakutsi duzun amorrua alde batera utzi, eta zentzuz eta zintzotasunez joko dezazula.

On dagizula txanpainak zuri ere! Nik hori, Orioko traineruak, brankaz eta poparean, Kontxako estropada irabazten duenerako jasotzen dut.

■ **Arantxa Sarasua**

## Ez dira moduak

Amaitzera doa kanpaina eta harrigarriak egin zaizkit zenbait prozedura. Azken bi asteetan Teknifikazio Zentroa eta Zaharren Egoitza aurkeztu ditu alkateak, EAJk edo Orio Udalak. Egia esan, ez zait oso argi gelditu zein izan den deitzailea. Zaharren Egoitzaren aurkezpena joan zen jendeak egoitzaren informazioa nahi zuen, baina EAJren

Gutun gehiago 15. orrialdean



Zinegotzietako batzuk ez dira egongo datorren legealdian. KARKARA

# Herriko ikastetxeekin hitzarmena sinatzea onartu zen azken udalbatzan

Hainbat tira-biraren ostean, Udala eta Orioko lau hezkuntza zentroen arteko hitzarmenak sinatzeko ahalmena eman zitzaien Jon Redondori aldeko 8 boto eta 3 abstentziorekin.

Maiatzaren 17an, asteartearekin, egin zen Orioko Udaleko legealdi onetako azken udalbatzarra. Gaien zerrendan puntu garrantzitsuena ikastetxeen arteko hitzarmena sinatu ala ez erabakitzea zen.

Aldeko 8 boto -EAJ, EA eta Ezker Abertzalea- eta 3 abstentziorekin -Aralar, EB eta PSE-EE- gehiengo absolutuz onartu zen hitzarmenak sinatzea. Hala ere, Joseba Goiburuk lehenago egin behar zela salatu zuen eta formetan akatsak izan zirela adierazi. Iñaki Iturainek ere bere abstentzioaren zergatia azaldu zuen, alde batetik, esan zuen prozesu hau gauzatzeko formak ez zirela egokiak izan bere aburuz eta, bestetik, gaineratu zuen zalantzak dituela modu honetara ikastetxe guztien berdintasuna bilatzekoan.

Honela bada, ikastetxeekin hitzarmena 5 urtetarako sinatuko da, eta 2010eko iraileko datarekin indarrean sartu eta 2015eko abuztuan bukatuko litzake, bal-

din eta ez luzatzea erabakiko balitzake.

Behin hitzarmena sinatuta, eskola bakoitzak diru kopuru hauek jasoko lituzke: Orioko Herri Ikastolak, 127.000 euro; Zaragueta Eskolak, 30.000 euro; Maria Maestra haurreskolak, 6.000 euro eta San Nicolas de Bari haurtzaindegia, 5.000. Kopuru hauek urtetik urtera Euskal Autonomi Erkidegoko KPI indizearen arabera hobetuko dira.

## Gainontzeko puntuak

Hitzarmenen puntuaz gain, beste 6 puntu zeuden zerrendan. Lehen bi puntuak guztiz informatiboak izan ziren, eztabaida eta bozketa gabeak, kreditu aldaketen inguruan. Hirugarrena ere antzeko puntu bati zegokion, 5/2011 kreditua aldatzeko espedienteari lehen onarpena ematea, kreditua gehitzeko modalitatean, eta puntu hau 9 aldeko boto eta 2 abstentziorekin -EB eta Aralar- onartu zen.

Hitzarmenaren puntuaren ostean, 5. puntuari Orioko Hiri Antolamenduko

Plan Nagusiari behin-behineko onarpena ematea eztabaidatu zen. Iñaki Garcia, EBko zinegotziak, aurkako 6 sententzia legeak uzten dituen zirrikituak pasata ekidin ostean aurrera jarraitzeko erabakia hartu izana salatu zuen. Berea izan zen kontrako boto bakarra, Ezker Abertzalea abstenitu egin zen eta EAJ, EA eta PSE-EEK aldeko botoa eman zuten, puntu onartuta geratzeko.

Azken aurreko puntuan, Orioko Kasiko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren 3. hirigintza-jarduketako udal etxebizitza tasatuak sustatzeko proiektuari behin-behineko kalifikazioa eman zitzaien aho batez onartuta.

Azkenik, Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegik hondakinen gestioaren inguruan aurkeztutako mozioa eztabaidatu zen. Jon Redondok birziklatu ezin dena erraustu beharra dagoela eta hortan oinarrituta ezezkoa emango ziotela mozioa onartzeari esan zuen. Atzetik, Leire Zinkunegik atez atekoak funtzionatzen duela eta EAJren plana petatxo bat baino ez dela eta Gipuzkoa hipotekatuko zutela gaineratu zuen. Aldeko 6 eta kontrako 5 botorekin -EAJ eta PSE-EE- onartu zen gaia.

# Kultur aniztasunaren hirugarren astea egingo da hilaren bukaeran

Aurreko edizioak arrakastatsuak izan direla ikusita, berriz ere kultur aniztasunaren jaia antolatu dute udalak, herritarrek eta gurean bizi diren atzerritarrek hilaren azken asterako.

Herriko kulturak ezagutzera emateko, Kultur Aniztasunaren Astea antolatu du Orioko Udaleko Euskara batzordeak.

Programaren barruan, hainbat sukaldaritza ikastaro antolatu dira, guztiak ere Toki Alai elkartearen izango dira maiatzaren 17an, 19an, 26an eta ekainaren 2an, 19:00etan; Saharako, Senegalgo, Mexikoko eta Brasilgo jakiak prestatzen ikasteko. Maiatzaren 23an, 24an eta

25ean hitzaldiak izango dira, kultur etxean, 19:00etan horiek ere. Saharari buruzkoa izango da lehenengoa, Brasili buruzkoa bigarrena eta Senegalen ingurukoa azkena.

Hilaren 27an etorri berrien eta herritarren arteko futbol partida jokatu da Mendibeltz futbol zelaian eta, horren ondoren, mokadutxo bat jango dute, indarrak berreskuratzeko.

## Maiatzaren 28a

Kulturen arteko jaia plazan izango da. Herrialde askotako produktuak izango dira euro baten truke eta bestelako emanaldiak ere bai.

12:30ean sarrera ekitaldia egingo da haurrekin. 13:00etan Saharako musika taldea arituko da. 18:00etan fadoak entzuteko aukera izango da; 19:00etan euskal dantzak izango dira Harribilen eskutik. 20:00etan manifestua irakurri eta bertsoak izango dira. 20:30ean, Ekuadorreko dantzak eta, 22:00etan, berriz, Senegalgo taldearen emanaldiak itxiko du jaia.



Brasilarren *capoeira* erakustaldiak ikusle asko bildu zituen aurreko edizioan. KARKARA

## LABUR

### Mendia

#### Kukuarri Eguna

Maiatzaren 29an izango da aurtengo Kukuarri Eguna eta urteroko deia egin du Talai Mendi elkarteak jendea bertara joatea animatzeko. Hori dela eta, batzuk bezeratik Kukuarri izango dira, gaua bertan pasatzen, eta igandean joaten direnentzako prest izango dute hamaiketako, txorizo, haragi egosi eta salda beroarekin. Otoitzaldia ere izango da beti bezala, goizeko 11:00etan hasita.

### Artea

#### Iñigo Manterola Mexikon

Iñigo Manterola artista oriotarra Mexikon da azken bost urteetan egindako 50 arte-lan erakusten. Lehen erakusketa, *Raíces al mar*, Euskal Etxean jarri zuen eta bigarrena *La Casa* galerian. Gainera, figuratibismotik abstrakziora egindako jauzia ere azaldu du ikus-entzunezko batekin. Erakusketez gain, hitzaldia ere emango du eta Gorka Larrañaga artista azkoitiarrarekin batera margolan sail bat ere sortuko du. Bere lana hedatzea du helburu eta, urrian, oraingo bizipenari buruzko erakusketa zabalduko du Donostian.

### Irteera

#### Gasteizera Zaharren Babeslektik

Ekainaren 8rako irteera antolatu dute Zaharren Babeslektukoek. 09:00etan Oriotik abiatu eta Gasteizera egingo dute bidaia. Han Santa Maria katedrala bisitatu eta, hirian ibili ondoren, Amurrioko Ruperito jatetxean egingo dute bazkaria: babarrunak, menestra, legatza, biribilkia eta postrea. Bazkalostean, berriz, Durangora joango dira eta han denbora libre izango dute herrian barrena ibiltzeko. Txartelak maiatzaren 24an banatuko dituzte Babeslekuan eta irteerara joan nahi duenak 30 euro ordaindu beharko ditu.



# Ibai Esoain irabazle Gipuzkoako Txapelketako lehen kanporaketan

Orion jokatu zen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako lehen kanporaketa: Ibai Esoainek lortu zuen puntuaziorik altuena (287 puntu) arratsaldeko saioan eta Andoni Otamendik goizean (321 puntu)

Gpuntua da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren leloa, eta puntu-puntu hasi zen Orion sailkapen faseko lehen kanporaketa. Goiz eta arratsalde seina bertsolari aritu ziren kantuan Ikastolako aretoan oriotarren eta kanpotik etorritako zaleen aurrean.

Hurrenez hurren Andoni Goitia, Andoni Otamendi, Endika Igartzabal, Josu Oiartzabal *Xamoa*, Arnaitz Lasarte eta Julen Agirreburualde igo ziren oholtza gainera eta Saroi Jauregi gaijartzailearen esanetara aritu ziren.

Hasierako agurrarekin 80 entzuleak berenganatu eta zortziko handiari ekin zioten bertsolariek lehenengo, eta txikian jardun zuten gero. Umore ona izan zen nagusi saioaren hasieran. Iparragirre doinuan aritu behar izan zuten gero eta seriora jo zuen saioak; aipatzekoak, esaterako, pateraren zain zeuden bi afrikarren paperean Otamendik eta Lasartek egindako bertsoak. Kartzelan hiru punturi erantzun zioten lehenengo eta, *gezurra* hitza gaitzat hartuta, bertsoa osatu gero.

Erregular aritu zen Andoni Otamendi eta, ondorioz, berak jaso zuen saio amaieran puntu gehien (321). Gainontzean, gorabeherak izan ziren puntuazioetan eta hala gelditu zen sailkapena: Arnaitz Lasarte (306); Endika Igartzabal (298,5); Josu Oiartzabal *Xamoa* (297,5); Andoni Goitia (286,5) eta Julen Agirreburualde (246).

## Arratsaldean jende gehiago

Arratsaldean Ibai Esoainek etxean kantatu zuen eta oholtza gainean Antton Fernandez, Nekane Zinkunegi, Gorka Azkarate, Mikel Artola eta Mikel Olaizola izan zituen lagun.

Eguraldiak berora egin zuen arratsalderako eta kanpokoa barruan ere sumatu zuten bertsolariek. Aretoa bete egin zuten gerturatu ziren 200 zale inguruk eta saio bizia entzuteko aukera izan zen, bertsolari guztiak arin aritu baitziren.

Jon Zaldua gaijartzaileak zortziko handian jarri zituen lehenengo lanean eta bertsoaldi politak osatu zituzten. Esoain eta Fernandez gurasoek seme-alaben harira parkean izandako elka-



Esoain izan zen onena Orioko arratsaldeko saioan. KARKARA

rrizketa txukun josi zuten parkeko kolupioak irudi gisa erabiliz.

Kopletako saioak, gaiek hala eskatuta, umoretsuak eta biziak izan ziren, elkarri arin erantzunez. Ibai Esoain amonak Mikel Olaizola bilobarri tanga hartu zio-la-eta horren harira egin zuten kantuan jendearen algarak eraginez.

Hamarreko txikian ere bertso biziak entzuteko aukerarik ez zen falta izan.

## Maiatzaren 28an izango dituzte hurrengo kanporaketak oriotarrek: Amezketan Esoainek eta Usurbilen Eizagirrek

Esoainek Azkaraterekin egindako saioan, batak idatzitako poemekin besteak liburua kaleratu zuela esan zien Jon Zaldua eta hitz joko politak egin zituzten.

Kartzelako saioan, zain zeuden bihotza iritsitakoan kantatu behar izan zuten. Bertso sentikorrek kantatu zituzten eta aipatzekoak Esoainek bihotzaren jabeari botatakoak: *bihotz taupa bakoitze-ko, zurekin oroituko naiz nire lagun bihotz-eko*, bukatu zuen saioa txalo asko jasoz.

Ibai Esoainek batu zituen arratsaldeko saioan puntu gehien (287) eta gainontzeko bertsolariak hurrenkera honetan sailkatu ziren: Gorka Azkarate (286); Nekane Zinkunegi (271); Mikel Artola (261,5); Mikel Olaizola (261); eta Antton Fernandez (260).

## Eizagirre Mutrikun

Mutrikun izan zuen aurtengo txapelketako estreinako saioa Egoitz Eizagirrek maiatzaren 14an. Kartzelako lanean behera egin bazuen ere, oro har, saio txukuna egin zuen eta, besteak beste, zortziko txikian ale ederrik utzi zuen. Saio amaieran bosgarren tokian geratu zen Eizagirre 314,5 punturekin. Gainontzeko kantukideek honako puntuak lortu zituzten: Jokin Uranga (332), Mikel Arrillaga (321,5), Oihana Iguaran (321,5), Gorka Maiz (316), Joseba Andoni Agirre (276).

Sailkapen fasea aurrera doa eta Esoainek eta Eizagirrek maiatzaren 28an izango dituzte hurrengo saioak: Amezketako kultur etxean 11:30ean Esoainek eta Usurbilgo Sutegi aretoan 17:30ean Eizagirrek.



Denboraldia bukatuta, datorrenari begira hasi dira futbol taldekoak. KARKARA

# Futbol denboraldia aste honetan bukatuko dute Orioko taldeek

Talde guztiek mailari eutsi diote, eta nahiz eta ez den lortu ez igoerarik ez txapeldun izaterik, gustura egoteko moduko denboraldia egin du Orioko Futbol Taldeak.

Aurreko denboraldiarekin alderatuz, gauzak hobeto joan zaizkio gizonezkoen lehen taldeari, esaterako. Jaime Coladoren mutilek 8. amaitu dute denboraldia 6. eta 7. postuan daudenekin berdinduta, eta zelaia partekatzen duen taldea, Getariako Keta, atzean utzita.

Ioseba Manterola *Baxerr*ren neskek ere txukun aritu dira denboraldian zehar. Txapeldunen fasean jokatu dute, eta talde laburra eta lesioak tarteko, ezin izan dute nahi bezain ongi jardun azken fase honetan. Hori dela eta, datorren denboraldira begira, herriko neskek futboleko Orioko taldean aritzera animatzen ditu *Baxerr*rik.

## Jardunaldi baten faltan

Jardunaldi bakarra falta zaie Jubenil, Kadete eta Infantilei denboraldia bukatzeko. Lehen biak igoera fasea jokatzen ari dira eta Infantilak, berriz, Ohorezko Mailako kopa.

Jubenilek ez dute inongo aukerarik

dagoeneko mailaz igo ahal izateko, azken postuan daude-eta. Baina ohorea izango dute jokoan azken partidari. Mendibeltzen jokatuko dute asteburu honetan eta, irabaziz gero, azken postua sahies dezakete.

Egoera bestelakoa da kadete mutilentzat. Hirugarren postuan daude Aloña Mendirengandik puntu bakar batera. Azken jardunaldia jokatuko dute aste honetan, eta puntu bateko alde hori jan eta berdinduz gero, Orioko taldeak igotzea lortuko luke. Horretarako, dagoenerako mailaz igota dagoen Bete Gazte liderra hartu beharko dute mendean Lesakan.

Azkenik, Infantil mutilek ere kanpoan amaituko dute denboraldia. Tolosaren aurka izango dute azken norgehiagoka, nahiz eta, dagoeneko, ez daukaten ezer jokoan oriotarrek.

Denboraldi luzea amaituta, irailera arte geldituko dira txapelketa ofizial guztiak.

## LABUR

### Squash, padel, tenis, bateatze Txapelketak pista berrietan

Squash, padel eta teniseko instalazio berriak herritarrei ezagutzera emateko txapelketa eta ikastaroak antolatu zituzten maiatzaren 7 eta 8rako. Padel txapelketan 8 bikotek hartu zuten parte eta txapeldunak Ruben Enparantza eta Mikel Zipitria izan ziren, finalean Pello Amilibia eta Marcos Pardinaren aurka jokatu ondoren. Squash txapelketan, 7 partaideren artean Iñigo Agirre izan zen nagusi. Bateatze proban 15 lagun ibili ziren eta tenis ikastaroetan, berriz, 45 lagun.

### Txirrindularitza

#### Ziklotur DV Oriotik Oriora

Izaera turistikoko Ziklotur DV Nazioarteko Zikloturisten Martxak Orion izango ditu irteera eta helmuga larunbatean, maiatzaren 21ean. 07:30etik aurrera egingo da izen-ematea herriko plazan eta han jaso beharko dute dorsala baita webgunean izena emandakoek ere. Las-terketa 09:00etan hasiko da eta 14:00etan itxiko dute helmugako kontrola. Bi ibilbide izango dituzte txirrindulariek aukeran 64 kilometrokoa, laburra, eta, luzea, 113 kilometrokoa. Asteasun -68 Km.- izango da anoa-postua.

### Sofbola

#### Espainiako txapelketa

Maiatzaren 20tik 22ra junior kategoriatik Espainiako Sofbol Txapelketa jokatuko da Orion. Orioko Bate Bizkorak taldearekin lehian arituko dira Valentziako CBS Antorcha-CEU, Donostiako Krafft-Aletico San Sebastian, Madrilgo Dridma Rivas Ciudad del Deporte eta Bartzelonako Projecte S. Gavanenc eta C. S. Viladecans taldeak. Hilaren 20an 12:00etan, 16:30etan eta 19:00etan hasiko dira partidak; 21ean, 12:00etan, 15:00etan eta 18:00etan izango dira; eta 22an 10:00etan eta 12:15ean. Antorcha taldea izango dute aurrez aurre oriotarrek 20an, 14:00etan, eta Viladecans 19:00etan; 21ean Atletico San Sebastian 12:00etan eta Projecte S. Gavanenc 18:00etan; eta 22an, 12:15ean Dridma Rivas. Juniorrek aste bukaera honetan jokatuko dute, baina kadete kategoriatik Orioko Bate Bizkorak taldeak jokatu du jada Espainiako Txapelketa eta Viladecans taldearen aurka finala galdu eta txapeldunorde izan ziren Bartzelonan. Gainera, Maialen Zubiak bateatzaile onenaren saria eskuratu zuen eta jaurtizaille onenarena Irati Barandiaranek ekarri zuen etxera.



# “Arrantzale familiakoa naiz eta itsasoari errespetu handia diot”

## Nekane Larrañaga

Ur-kirol zalea

Itsasoa du zaletasun; olatuak harrapatzen beti ibili izan da eta beti erakarri izan du olatu gainean ibiltzearen sentrazioak. Itsasoko ura azpitik pasatzearen zirrara hori atsegin du Nekane Larrañagak eta hori ematen dio, hain zuzen ere, *Bodyboard*-ak

### IRATIAGIRREAZALDEGI

Getariarra jaiotzez, Oriora ezkondua. Itsasoa eta itsasoarekin lotutako edozer izan du beti gustuko. Aste Santuan etortzen ziren *arrain beltzei*, surfistei, begira egon ohi zen eta haiek bezala taula gainean zutik ibiliko zela uste ez, *bodyboard*-a probatu eta horretan saiatzen da.

#### Noiz probatu zenuen lehen aldiz?

Beti begira egoten nintzen eta pentsatu nuen *aurten probatu egin behar dut*, baina taulena nahiko konplikatua iruditzen zitzaidanez... Udararen askotariko ikastaroak izaten dira, baina gaztetxoentzat edo hirugarren adinekoentzat, guretzat ez, eta talde handi bat baztertuta dago.

#### Nola ikasi duzu *bodyboard*-a egiten?

Ez dut ikasi, ez dakit, saiatzen ari naiz. *Bodyboard* taula erosi, lagun batek hegatxak utzi zizkidan eta pixkanaka probak egiten nabil. Gazteagoa banintz, surfean ere saiatuko nintzateke, baina surfak gehiago eskatzen du. *Bodyboard*-ean ur ertzeko olatu txikiak nahikoa dira jolaserako eta niretzat ur-kirolak jolasa dira. **Gaztetxoentzako kirol moduan hartzen dira itsas-kirol asko.**

Ikastaroak ez dira guretzat bereziki antolatzen eta gaztetxo guztiekin aritzeak lotsa emango lidake. Iaz hastekotan egon nintzen, baina asmo hutsean gelditu zen. Dena dela, ez naiz surf edo *bodyboard*-ari buruz bakarrik ari, guretzat bestelako ekintza gehiago ere antolatu beharko lirakeke. Badirudi gazteentzako bakarrik antolatzen direla horrelakoak eta gero erretiratuentzat eskulanak.

#### Orion, zure adinean ibiltzen diren bakarrenetarikoa zara?

Ez da taldeko kirol bat eta, gainera, egiten ditudan gauza gehienak horrela egiten ditut; bizikletaz buelta bat ematera joaten naizenean ere bakarrik joaten naiz eta ez dut inoren faltarik sumatzen,



INIÑO FERNANDEZ

ohituta nago. Nire ilobak denak ibiltzen dira surfean, baina ni bezala ez dakienik eta probatzen baino ez dabiltzanak ez dakit badauden.

#### Zailena zer iruditzen zaizu?

Probak egiten ari naizenez, neketsua egiten zait; proba gehienak neguan egin ditut eta olatuak, besteentzat behar bada txikiak direnak, niretzat handiegiak dira. Olatu txikiak beharko nituzke, horiekin konformatzen naiz.

#### Orioko hondartzan gustura?

Hau nire etxea da. Ez naiz beste hondartzara batera joango. Ez dut sekula pentsatu surfista izango naizenik. Ondo pasa nahi dut, probatu... Ur zalea baino ez naiz. Bizikletan ibiltzen naizelako ere ez dut nire burua zikloturistatzat.

#### Askotan sartzen zara uretan?

Ez dut maiztasun zehatzik. Hondartzan aurrean bizi naiz; beraz, gogo daukadanean joan eta ibiltzen naiz. Beste kirolik ere egiten dut: bizikletan ibiltzen naiz,

### “*Bodyboard*-ean ur ertzeko olatu txikiak nahikoa dira jolaserako eta niretzat ur-kirolak hori dira, jolasa, denborapasa”

“Surfean dabiltzanei begira, taula gainean, tente-tente doazela ikusteak eta senti dezaketena imajinatzeak lilura sortzen dit”

oinez, gimnasioan... denetarik, baina pixka bat.

#### Baduzu surfean miresten duzun inor?

Inor konkreturik ez. Nire ilobak ibiltzen dira surfean eta haiei begira, taula gainean tente-tente doazela ikusteak eta senti dezaketena imajinatzeak lilura sortzen dit. Teknika berentzat oso garrantzitsua da, baina nik ez dut horrelako anbizioirik, ondo pasatzea da nire nahi bakarra.

#### Olatu handiekin sartzen zara uretan?

Arrantzale familiakoa naiz eta itsasoari errespetu handia diot. Ederra da itsasoa, baina errespetua zor zaio.

#### Nola animatuko zenuke jendea?

Adin guztietan egin behar duzu gustuko duzuna. Neska gehienak bikotearen arrimuan ibiltzen dira surfean; ni, ordea, horrelako kontuetarako bakarti samarra naiz.

## Aiako IV. Auto Igoeran 60 bat gidaririk hartuko du parte maiatzaren 28an

Andatzatik Aiara bitartean arituko dira auto-karrerako parte hartzaileak eta, beraz, errepidea itxita izango da gainontzekoentzat 14:00etatik 20:00etara bitartean.

Lagun-Artea taldeak antolatuta, Aiako IV. Auto Igoera jokatu da maiatzaren 28an, larunbatarekin. Andatza auzotik Aiara bitartean ibiliko dira autoak eta, bide batez, Gipuzkoako eta Euskadiko mendi txapelketak jokatu dituzte.

Izen-ematea oraindik irekita badago ere, aurreikuspenen arabera, iaz baino auto gehiagok hartuko du parte lasterketan, 60 inguruk.

Aurten, orain arte ez bezala, bi taldeetan banatu dituzte autoak: turismoak batetik eta *barchetta*-k bestetik. Beraz, bi irabazle izango dira. Turismoetan Jose Ignacio Erdoiza *Lebeiti* eta Iñaki Alberdiren -Porschea ekarri zuten- artean lehia egongo dela uste dute antolatzaileek. Eserleku bakarreko autoetan, berriz, iazko irabazle Aitor Zabaleta da faborito nagusia.

Aitor Zabaleta gidari bergararrak irabazi zuen aurreko urtean eta probako errekorra ezarri zuen, gainera, Andatzatik Aiara arteko bidea bi minututik behe-  
ra bukatu baitzuen.

Lasterketako antolakuntzan laguntzaile izaten den Uhartemuño kultur elkarte-kide Arkaitz Iruretagoienaren esanetan, iazko errekorra gainditzea zaila izango da. *Baina eguraldi ona eginez gero, eta bide tarte horretan asfalto kapa berria bota dutenez, gurpilak errepidera hobeto itsasten direla kontuan hartuz gero, baliteke denbora hori hobetzeko aukera izatea.*

### Errepidea itxita

Larunbat goizean autoen eta gidarien egiaztatzeak egingo dituzte. Hau da, antolatzaileek 10:00etatik 12:00etara bitartean autoak behar bezala dauden begiratu dute: segurtasun neurriak betetzen dituzten, beharrezko paperak dituzten... Arratsaldean, 15:30ean jarriko dituzte motorrak martxan Andatzako irteera puntuan. Aiako bidea, ordea, 14:00etatik 20:00etara bitartean itxita egongo da gainontzeko ibilgailuentzat.

Auto igoeran gidarien artean sortzen den lehia bizia bertatik bertara ikustera joan nahi dutenek 10 euroko sarrera ordaindu beharko dute.

Aiako igoerak laugarren aldia du aurten eta zirkuituan aldaketak egitea litzateke antolakuntzakoena nahia; zaila dute, ordea: *Ibilbidea luzatu nahi genuke, baina Andatzako zuzengunean dauden zerbabide altxatuek galarazi egiten dute, autoek azpiarekin joko lukete-eta, esan du Arkaitz Iruretagoienak.*



Aiako igoeran kotxe berriez gain klasikoak ere izaten dira. ENEKO GALARRAGA

## LABUR

### Erromeria

#### Tapia eta Leturia Aristerrazun

Maiatzeko igande arratsaldeetako erromeriak ixteko, Andatzako Erromeria Elkarteen eskutik, hilaren 22an Tapia eta Leturia trikitilarien doinuek hartuko dute Aristerrazu. 18:30etik 21:30era bitartean izango da Andatzen dantzarako aukera. Maiatzaren 29an, berriz, ez da erromeria-rik izango Aristerrazun.

### Festak

#### Asentzioko feria maiatzaren 29an

Maiatzaren 29an, igandearekin, izango da aurten Asentzioko feria. Goizerako azoka antolatu dute eta 10:00ak eta 14:00ak bitartean azoka izango da plazan barazki, fruta, gazta, ezti, ogi, gozogintza, lore, ardo eta beste baserriko produktuen erakusketa eta salmentarekin; abere, ganadu, ardi, hegazti eta animalia bitxiak ere ikasi ahal izango dira eta baserri lanabesak salgai jarriko dituzte. Eguerdian, baserriko ofizioen erakusketa (ardi ile-

mozketa, idi uztarketa...) egingo dute aparkalekuan; plazan, berriz, euskal baserriko oilasko pintxoak eta sagardo, txakolin eta ardo dastaketa izateaz gain, ogi eta artisautza postuak egongo dira. Arratsaldeko, profesionalen arteko pilota partidak antolatu ditu Aiako idi-dema elkarteak. 17:30ean hasita, lau t'erdian, Onsalo eta Larrañaga arituko dira frontoian. Binaka, berriz, Mikel Goñi-Jauregi Beitia-Gorrotategiren aurka. Ondoren, Laja II eta Unai Narbaiza trikitilariekin erromeria izango da plazan.



# Ilbete, ilberri eta gorabeherak...



rain dela egun batzuk, KARKAKO atal honetan ilargiaren aldiei buruz mintzatzzen zen bat. Hainbat aldiz irakurri ondoren, kostata,

baina teoria zientifiko hark esan nahi zuena ulertu nuela uste dut. Irakurtzean, ilargiaren zikloak ikasteko bi pasadizo gogoratu, eta haiek kontatzera nator.

Norbaitek esan zidan behin ilargiak gezurra esaten zuela. *Gezurra, nola ba! Ilargiak ez du hitz egiten eta!* Bai, gaztelaraz gezurra esaten du. D letraren antza duenean, buelta eman behar zaio Cren itxura eman eta *Creciente* dagoela esango digu, hau da, ilgora. C letraren itxura duenean, berriz, alderantziz, buelta eman eta *Decreciente* dagoela, hau da, ilbera. Garai hartan ez nuen ulertu eta

gaztarena esan zidan: *Izarrezko mantellean, ilunean, gazta borobil-borobila dagoenean, hasi gabea, ilbete da, eta mantellean gaztarik ez dagoenean, ilberri.*

Beste kontakizunak jai ezagun batzuetan egoten den ilargiaren egoera jakiteko balio dezake. Aspaldi ba omen ziren bi basomutil fin. Batek hainbeste maite omen zuen ama, non hala esaten omen zuen: *Ai! Gure ama gaixua, nik matte detenakin eta laster hil egin behar!*

**Norbaitek esan zidan behin, ilargiak gezurra esaten zuela. Gezurra, nola ba! Ilargiak ez du hitz egiten eta!**

*Zer in behar dit nik hura hiltzen ba? Hara, inor nire ama hil dela abisuarekin etortzen bazaiak, jata bera hilko dit!* Basomutilaren esana inguru guztira zabaldu eta jendea beldurtuta zegoen.

Etorri omen zitzaion amari, mundu hau uzteko ordua, eta inor ez omen zen semeari abisua ematera ausartzen. Halako batean, gizon batek bera ez zuela hilko eta joango zela esan omen zuen. Basomutilak lanean ari ziren lekura heldu eta honela mintzatu zitzaion: *Ari zarete mutillak!* Eta basomutilak erantzun: *Bai ari gaituk, zer berri dakarkik?* Eta gizonak: *Aste Santun ilbera, urteberrin ilberri, hire ama ez dek, ez gose eta ez egarri!* Eta basomutilak erantzun: *Hil da orduan?* Eta gizonak: *Hik esan dek!* Horrela salbatu omen zen gizona eta baita basomutila ere abisuaz enteratu.



## Txokoak eta jendea Aiako Errealzaleak peña berria

Maiatza hasieran peña berri bat osatu zen herrian Aiako Errealzaleak izenarekin. 50 lagunek osatzen dute taldea eta hemen ditugu argazkian kabitu ziren denak pozik Realeko lau neska-mutil jokalariekin batera. Giro polita izan zen. Norbaitek taldean sartu nahi badu, Aize berrik jaso dezake eskaria. Aupa Reala eta zaleak!

# “Herriarekiko ezagutza eta urteetako eskarmentua eskaintzen dugu guk”

## Igor Iturain

EAJren hautagaia

Gaur egungo alkate Igor Iturain izango da maiatzeko hauteskundeetan EAJ alderdiaren zerrendaburua.

### Zer egin da ondo eta zer gaizki bukatze- ar den legealdi honetan?

Gauza dezente egin dira ondo, nire ustez: baserri eta auzo txikietako azpiegiturak hobetzen saiatu gara, batik bat. Azpiegituretan ere lan ona egin da: urak bideratzea, saneamenduko lanak, bidekonponketak... Santio eta Andatza auzoetan, berriz, gasa sartu da. Herriguneari dagokionez, aparkaleku gehiago egin dira, saltoki txikiak sustatzeko lokal komertziala eraiki... Azken finean, auzoen eta herrigunearen arteko oreka mantentzeko egindako lanak izan dira.

Zenbait gestio, aldiz, ez dira ondo egin: auzoko bilerak ez dira mantendu; auzotarrekiko harreman horri ez diogu eutsi. Horretan huts egin dugula aitortzen dut.

### Zeri emango diozu lehentasuna datoren legealdian?

Gaizki egindakoari buelta ematea izan-

go dugu lehentasun: auzotarren bilerak errekuiperatzea eta harremana berriz eskuratzea.

Hezkuntza arloan ere erronka garrantzitsua daukagu: Lardizabal eskolaren zoriarekiko leku-faltari irtenbidea ematea. Gure apustua garbia da: eraikin berria altxa behar da, eskola ondoko erabilera anitzeko zelaiaren alboan. Jakinararen gainean dago Hezkuntza Saila, aitortu dute toki-falta duela eskolak eta erantzunaren zain gaude.

Bestalde, azpiegiturak hobetzen ere jarraitu behar dugu, ur hornidura eskasa duten zenbait baserrigune badaudelako oraindik ere. Gainerakoan, bizilagunen eskaerari erantzunez, frontoi-soziedade modukoa altxa nahi dugu Elkanon, garrantzitsua iruditzen zaigulako elkarrekin biltzeko txokoa izatea auzotarrek. Santio Errekan ere beste elkargune bat

egitea aurreikusten dugu.

Teknologia berrien inguruan ere egingo da lan. Telebista eta abarrak Internet bidez izango dira etorkizunean eta prestatzen joan behar dugu. Energia berriztagarriek emandako aukerak ere begiratzeko hasi behar dugu, inguruneak ematen dizkigun aukerak ikertuz.

Beste hainbat proiektu ere baditugu: aparkalekuak Santio eta Urdanetan, plazaren biziberritzea Andatzen, auzoko sarrera hobetzea Laurgainen...

### Zer eskaintzen dio zure alderdiak Aiari besteek ez dutena?

Herria ongi ezagutzen dugu guk; herri-implikazioa egunerokotasunean, ekin-tzetan. Gure zerrendan garbi islatzen da hori. 30 urte hauetan gestio kontuetan hartutako eskarmentua ere alde daukagu. Ez dakit besteek badaukaten ala ez, baina guk, behintzat, baduguna da herrian lan egiteko gogoia.

### Gero eta gutxiago dira baserriko jardueretatik bizi direnak. Zer egin behar du Udalak horien etorkizuna bermatzeko?

Etorlurren bitartez, lur-bankoak ustiatu nahi ditugu. Elkarre horren bitartez, zikinak hartutako lurra herriko artzainei uzten zaizkie, udan, ardiak larrera

### “Etorlurren bitartez, lur-bankoak ustiatu nahi ditugu, zikinak hartutako lurra herriko artzain eta nekazarien esku uzteko”

“Auzoko bilerak ez dira mantendu; auzotarrekiko harreman horri ez diogu eutsi. Bilera horiek errekuiperatzea dugu lehentasun”

eraman eta lursaila garbitzeko. Duela bi urtetatik martxan dagoen proiektua da.

Nekazari asko oso egoera larrian daude. Gure helburua baserritarrek dituzten eguneroko gastuak (pentsua, belarra...) jaiste litzateke. Baserri lanekin jarraitu nahi dutenei landu gabeko terreno propioak lagatzeko prest daude batzuk: belar berria sortzeko, artoa aldatu ahal izateko... Hortik jo nahi dugu.

Horrez gain, baserritarrei Bizi Iturri proiektuan parte hartzeko aukera eman nahi diegu, turismoari lotutako produktuak eta herriko produktuak saltzeko. Baserritar berrientzat ere erakargarria dela iruditzen zaigu.



KARKARA



# “Bizimodua eta lana duintasunez egin behar ditu baserritarrak”

## Aritz Arruti

Bildu-ren hautagaia

Hauteskundeetara lehen aldiz aurkeztuko da Bildu koalizioan alkate izateko Aritz Arruti gaztea.

### Zer egin da ondo eta zer gaizki bukatze- ar den legealdi honetan?

Batetik Landabusen proiektua eta San Pedroko haurrentzako parkea positibotzat jotzen ditugu, horien beharra nabarmena zelako. Baina bestalde, merkataritzarako lokalen eraikinari eman zaion erabilera negatiboki puntuatzen dugu. Izan ere, merkataritza hutsera bideratutako espazio izatetik erabilera anitzekoak izatera pasa dira lokal horiek, guztiak komertzioek hartzea lortu ez delako. Aurreikuspen faltaren ondorioz, jatorriz merkataritzarako zen eraikina gazte lokal eta emakume baserritarren bulego inprobisatu bihurtu dira lokalak, adibidez, horretarako ezaugarriak betetzen ez dituzten arren. Horrenbeste etxebizitza berri egin ondoren, ez da modu egokian hausnartu zenbat toki behar den merkataritza-lokalentzat eta

### zenbat leku herritarren beharretarako. Zeri emango diozu lehentasuna datoreen legealdian?

Kudeaketa eta erabakien gardentasunari, herria modu ulerkorrean informatu eta iritzi bilketa egiteari emango diogu lehentasuna. Ezinbesteko garrantzia du horrek guztiak herri bat ongi joan dadin. Adibidez, aurrekontuak zein diren eta zertarako erabiliko diren adieraztea...

Bestalde, eskola berri baten beharra daukagu, herriko haurrak gero eta gehiago direlako.

Horrez gain, kanposantuko zelaiaren etxebizitarik ez eraikitzeke eta zelaia babesteko konpromisoa dugu, momentua iristean arau subsidiarioak aldatuz; herriko gazteentzat leku bat falta da. Aurretik aipatutako gazte lokalak egokiago ikusten dugu orain haurreskola dagoen eraikineko solairu batean.

Haurreskolarekin zer egin? Matadero etxea leku aproposa da arazoari irtenbidea emateko. Lekua sobera du barruan eta jolasteko toki segurua kanpoan. Haurrekin lotuta, pediatria zerbitzua mantentzeko pausuak emango ditugu.

Azkenik, kultur mahaia osatu eta betiko kultur ekintzez aparte, kasko eta auzoetara begira, eskaintza zabaldu; etxe premian direnentzako konponbidea bilatu, etxe hutsen alokairua bultzatuz...

### Zer eskaintzen dio zure alderdiak Aiari besteek ez dutena?

Lantalde gogotsua, herriarekin egongo dena, herriaren behar edo nahiak gertutik ikusten dituen; garrantziko gauzetan erabakiak despatxutik zuzenean hartuko ez dituen. Jendearekin kontsultak egiteko jarrera izango dugu. Aiako Bilduk haize berria emango dio gure herriari.

### Gero eta gutxiago dira baserriko jardueratik bizi direnak. Zer egin behar du Udalak horien etorkizuna bermatzeko?

Krisia tarteko, lehendik ere egoera zailan zegoen lehen sektorea izan da kalte-tuena. Beraz, bi bider erasan dio nekazariari: esnearen prezioa, gasoilarena...

### “Kudeaketa eta erabakien gardentasunari, herria modu ulerkorrean informatu eta iritzi bilketa egiteari emango diogu lehentasuna”

“Haize berria emango dio Bilduk Aiari: herriarekin egongo den lantalde gogotsua, jendearekin kontsultak egiteko jarrera izango duena...”

Egoera eraman ezina da askorentzat.

Aian ezinbesteko ikusten ditugu baserritarrak eta, zorionez, izan, baditugu herrian. Nekazaria berezkoa du Aiak eta ez dira postaleko argazki soilak. Herri batek elikadura aldetik buruaskia izan behar duela uste dugu eta Aian badugu potentziala. Baserritarrari bizimodua eta lana duintasunez gauzatzea bermatzen saiatu behar dugu: herriarenak diren, baina baserritarrek maiz erabiltzen dituzten bideak txukun mantenduz; elkarlana bultzatuz; aisialdiaz gozatzeko aukerak sortuz; nekazari, kooperatiba eta kontsumo taldeak elkarlanean jarritz; bertako produktuak sustatuz; zuzeneko salmenta bultzatuz...



A. AUZMENDI

# “Gure politikaren ardatza ahulenen aldeko giza-politika izango da”

**Alberto Agirrezabal**

PSE-EE-ren hautagaia

Zinegotzirik ez du gaur egun PSE-EE alderdiak Aian, eta Udalean ordezkartza izan nahi dute legealdi honetatik aurrera.

## Zer egin da ondo eta zer gaizki bukatze- ar den legealdi honetan?

Aurreko hauteskundeetan, autonomiko nahiz orokorretan, hautesle sozialistak izan ditugu Aian. Hala ere, orain arte ezin izan dugu aiarez osaturiko hautagai-zerrendarik aurkeztu. Herri honek azken urteotan bizi izan duen salbuespen-egoera politikoak gure militanteen artean hautagaiak lortzea eragotzi du erabat, eta zenbait udalerritan ez dugu zerrendarik aurkezteko aukerarik ere izan.

Orain, etorkizun politikoa argitzen doan neurrian, gure hautesleek, iraganen aukera sozialista egin dutenek eta gaur egun gure alderdia aukera politiko hoberentzat hartzen dutenek, udal eta foru hauteskundeetan beren nahi politiko bideratzeko aukera izango dute.

Oraingoan, aiarez ere ordezkaria

izango dute Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Gure hautagaiak etengabe arituko dira datorren legealdian, Aiak eta Urola-Kosta barrutiak Gipuzkoako Batzar Nagusietan bere ahotsa izan dezaten sozialisten ahotik. Sozialistok indarra dugu Batzar Nagusietan, eta Aia eta bere herritarren onura atsedetik gabe defendatuko ditugu.

## Zeri emango diozu lehentasuna datorren legealdian?

Aiarako dugun egitasmoa inguruko herrietan ditugun antzekoa da, antzekoak baitira herritarren arazoak ere.

Krisi ekonomiko orokorrak eragina izan du –baita gure eskualdean ere–, bereziki, ahulena direnengan ondorio larriak eraginez.

Lehentasunak argi ditugu: gure politikaren ardatza ahulenen aldeko giza-politika izango da, Ongizate Saila sendotuz

eta enplegua sustatuko duten neurriak bultzatuz.

Etxebizitzari dagokionez, alokairuaren alde lan egingo dugu, batik bat.

Gure proposamenen artean honako hauek ditugu: eraginkortasun energetikorako plana garatu nahi dugu, eta zentro publikoetan aurrezteko neurriak ezarri, esate baterako, kontsumo txikiko argiak jarritz, berokuntza-sistemak hobetuz, nahiz argiteria publikoan kontsumo txikiko argiak erabiliz.

Aiatik Urola Kostako Mankomunitatearen egitasmoak bultzatzen segituko dugu; besteen artean, bosgarren edukiontzia erabilera indartuko eta enplegua bultzatuko ditugu.

## Gero eta gutxiago dira baserriko jardueretatik bizi direnak. Zer egin behar du Udalak horien etorkizuna bermatzeko?

Ohitura osasungarriak bultzatu nahi ditugu, bertako elikadura eta elikadura ekologikoa sustatuz. Era berean, turis-

## “Laborantza ekologikoari buruzko prestakuntzaren alde egingo dugu eta programak egingo dira ikastetxeekin batera”

“Sozialistok indarra dugu Batzar Nagusietan eta Aia eta bere herritarren onura atsedetik gabe defendatuko ditugu”

## “Lorezaintza iraunkorra sustatuko dugu eta udalerrian dagoen baratze ekologikoen eskaria asetzen saiatuko gara. Hemen kokatuko genuke baserriaren etorkizuna, gure ustez”

mo ekologikoaren inguruko ekimen berriak bultzatuko ditugu.

Laborantza ekologikoari buruzko prestakuntzaren alde egingo dugu eta programak egingo dira ikastetxeekin batera, beste hainbat jardueren artean.

Lorezaintza iraunkorra sustatuko dugu eta Udalerrian dagoen baratze ekologikoen eskaria asetzen saiatuko gara.

Hemen kokatuko genuke baserriaren etorkizuna, gure ustez.



PSE-EE



#### 4. orrialdeetik dator

triptikoa ere jaso zuen opari. Horrez gain, Jon Redondok botoa eskatu zuen. Bereiztu egin behar dira proiektuen aurkezpenak eta kanpaina. Eta jendea aurrez informatu: proiektuen itzalean botoa eskatzea ez da zilegi.

Teknikazio zentroaren kasua da harrigarriena: EAJk egin zuen deialdia bere Facebook orrialdean. Baina Mikel Izquierdo udaleko teknikariak eman zituen azalpenak Kultur Etxean. Udalaren proiektua da eta Udalak deitzea litzateke normalena; baina hauteskunde kanpainan, ez. Plenotik pasatako erabakiak dira, zinegotzi guztien artean erabakitakoak. Alkateak ezin du Udalaren proiektuen aurkezpena kanpainarako gorde, ez baita bere proiektua bakarrik, herriarena delako.

Beste kontu bat argazkietan. Herriko bake-epailea alderdi baten argazkian. Garbi asko jartzen du botere judizialaren 6/85 legean, 395. artikuluan esaterako. Lege kontua baino gehiago, elegantzia kontua da; ez da itxura. ■ **Oriotar bat**

### Alkate eta zerrendaburu

Alkate eta zerrendaburu, hauek dira azkenaldian Jon Redondok dituen eginkizunak. Alkate izateari errespetua balioke, zeregin bakoitzaren esparruak bereizten saiatu beharko luke. Baina ez, udal osoaren ordezkartza bere hautagaitzaren probetxurako ari da erabiltzen Jon Redondo.

Udalan inongo berririk eman gabe, herriko bi ekipamenduen aitzakian beretzat kanpaina egiten jardun da, badirudi bera bakarrik dela behar horietaz ari dena, baina ez da horrela. Guk ere bultzatzen ditugu proiektu horiek eta baita beste batzuk ere.

Arazoa ez da proiektu edo egitasmotan zein den garailea. Baizik eta eztabaidatzeko eta adostasunera iristeko gaitasuna. Zoritzarrez, zinegotzi bezala, lau urte hauetan Jon Redondorekin izan dugun esperientzia ez da batere ona izan. PSE-EEko zinegotziaz aparte, besteok gutxietsi eta baztertu egin gaitu; legealdi osoan ez du kolaboratzeko borondaterik erakutsi. Aldiz, bere irudia erakusteko obsesioak ez du mugarik izan. Hau da beste lau urterako alkatetzarako aurkeztu den Jon Redondoren benetako irudia: konfrontazioarena eta zatiketarena. Herri honek zerbait hobea merezi du eta aukera daukagu hauteskundeetan.

■ **Joseba, Karmele eta Leire**

### Dena libre al da?

Hauteskundeak medio, denetarik ari gara ikusten gure herrian; baina boto-arrantza honetan, dena al da libre? Txundituta gaude lan horretarako erabiltzen ari diren sare pelagikoekin. Primeran iruditzen zaigu herritarrak konkistatu nahi izatea, baina non dago muga? Presaka txukundu digute herria, horrenbeste denboran utzitakoak konponduz; inaugurazioak; OE marketing-plan ikusgarriak... Hori guztia nahikoa ez, eta aurkezten garen beste taldeak zapaltzea izan da estrategia nagusia.

Oriotarrak beldurtu nahian, beste taldeei buruzko zurrumurruru itsusiak zabaltzen aritu dira, errespeturik gabe. Badirudi beste talde politiko bat aukeratzeak Orioren hondamendia ekarriko duela. Baina, berena al da egia osoa eta bakarra? Berek bakarrik al dakite Oriok zer eta nola behar duen? Uste dute maiatzaren 22an egingo zaiela etsamina, baina azterketak lau urte luze iraun ditu, eta nota jartzeko garaia da orain.

Udalak duen jarrera aldatu beharra dago. Ez da normala horrelako herri txiki batean hainbeste istilu eta haserre izatea. Gaztetxearen inguruan izugarritzko utzikeria, Ikastolaren hitzarmena bertan behera uztearekin sortu den tentsioa, Balearen Egunerako ere ezin herritarrokin festa eder bat antolatu... Nola da posible, Balearen Egunerako dagoen ilusioarekin, herritar guztiak festarako eta parte hartzeko gogoz egonda, bi festa-programa izatea herrian?

Gauzak beste era batera egin daitezke. Udalak agintari ala zerbitzari izan behar du? Herriak ez al du zer esanik Udalan? Guztiok gara oriotarrak, eta herritar guztion artean egin behar dugu Orio. ORAIN dugu aukera. ■ **Orain (Orioko Aukera Independentea)**

### Hauteskundearen miraria

Ikastolako guraso bezala, alkateak alde bakarrez Hitzarmena hautsi, eta berreskuratzeko bizitako une latz guztien ondoren, zenbait gogoeta plazaratu nahi nituzke.

Lehenik, eskerrak eman nahi dizkiet Ikastolako Artezkaritza osatzen duten guztiei, Ikastolaren izaera herrikoiari eustea izan dutelako helburu; eta hala izateko, Hitzarmena berreskuratzeko, egindako lan gogorragatik.

Nire barruan poza sentitzen dut Hitzarmena berreskuratu dugulako;

baita tristura eta haserrea ere EAJk azken ordura arte izandako jarreeratik. Izan ere, Hitzarmena etorri bada, EAJk hauteskundeak dituelako gogoan, eta soilik botoak inporta zaizkiolako izan da.

Urte hauetan guztietan, gezurra baino ez duzue erabili Hitzarmena hautsi izana arrazoitzeko. Arartekoaren ahotan jarri duzue berak inoiz esan gabekoa; tranpa erabiliz, ordenantza eta Hitzarmena herriaren aurrean pareko bezala saldu duzue, lehenengoak bakarrik eskolaz kanpoko jarduerak laguntzen zituenean; bolo-bolo zabaltzen ibili zarete Orioko Ikastola Udaletik diru gehien jasotzen duen Ikastola dela, ia azken bi urteetan Ikastolak Udaletik 0 € jaso, eta DBHk erabiltzen duen eraikin berria egiteko, Ikastolak zuen guztia eman, eta 2 miloi euro jarri dituenen (Eusko Jaurlaritzarekin hitzartutako diru-laguntzak barne), eraikinaren jabetza Udalarena izateko.

Azken hilabeteetan, zenbat aldiz zabaldu duzue komunikabideetan eta herrian Ikastolarekin akordioa lortuta zegoela, artean dena erabakitzeke zegoenean? Zuen jarrera aldatu da Ikastolak herritik jaso duen babesak beldurtu zaituztetelako, eta hauteskundeetara begira alkatetza jokoan ikusten duzelako. ■ **Xanti Mujika**

### Zaborraren, zer?

Hauteskunde bezperatan gai batek kezkatzen nau: zaborrenak. Orion orain arte kontenedoreak erabili ditugu; horietako asko lur azpian daude, era egokian. Aitortu behar dut zerbitzuak oso ondo funtzionatzen duela eta urte guztian egunero etortzen dela kamioiak kontenedoreak hustutzera.

Legealdi honetan oposizioa atez ateko sitema jarri nahian ibili da. Hori momentuz ez da posible izan alkateak nahi izan ez duelako, baina zer gertatuko da hauteskundeetan Bilduk gobernatzen badu? Bada Orion zabor poltsak kalean egongo direla zintzilikaturik. Usurbil edo Aginagatik pasatzen naizenean ikusten dudana irudia ez zait batere gustatzen: zikin itxura, kiratsa, narraskeria...

Turismoari ere kalte egingo lioke eta, gainera, garestiagoa da.

Hori nahi al dugu? Zabor poltsak kalean zintzilik nahi dituenak Bilduri eman diezaiola botoa eta orain arte bezela kontenedoreak nahi ditugunok, EAJri. ■ **Amaita Loidi eta beste 20 sinatzaile.**

**26 GURPIL**

Bosgarritik 2 - 8 - 20810 Orio (Gipuzkoa)

943 83 33 888 [www.26garpil.com](http://www.26garpil.com) [26garpil@hizmail.com](mailto:26garpil@hizmail.com)

Igo zaitoz haize berrietara!

**Galema I**

943890416 - 677149334  
galema1orio@hizmail.com

**uranga**  
autozerbitzua

**Aliprox**

Barria Gordin Telera 13-16  
ORIO  
943 83 38 75

**ARKAITZ**  
Taberna

Pinxoak,  
plater konbinatuak  
eta ogitarako mundialak

ABELABAYATEA, 1      Tel: 943 83 16 57

**AMILIBIA**  
ONTZIALAK, S. L.

Lehiaketa publikoak  
eta lehiaketak

gaitasunak, teknologia  
arabiarrenak

Olasoagaia auzoa, 52  
34 943 83 08 29  
faxa 34 943 89 40 81  
amilibia@amilibia.com  
www.amilibia.com

**azkue**

Tf: 943 13 04 38

**Allianz**

**Marigre Zaldua**  
aseguru agentea

Euzko Ondo, 10 behe-oina  
telefonoa: 943 13 47 80  
fax: 943 63 87 52  
e-maila: zaldua.dolores.pa@allianz.es

Kinkiladenda - Ume arropa

**argine**

[www.lasnet.com/argine](http://www.lasnet.com/argine)  
Tel. 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA  
UGARIEN TXARTELAREKIN

[www.karkara.com](http://www.karkara.com)

Fresko fresko, zuretzat!

**INDO**

**Garraio frigorifikoa**  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olasoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

**Gabon**  
TABERNA

Plater konbinatuak  
pinxoak

Tf: 943 83 06 09

Maldier Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.  
Arrantzaile 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa  
Tel. 943 575 361

**oinarri**  
PODOLOGIA ZENTROA

Carmen eta Txomin  
ARRANDEGIAR

943 83 05 37 / 943 83 27 47

**Dorronsoro Denda**

196.letiki zure ondoan

AUKERA HANDIAGOA  
FRUTATEGIAN

Tel 943 83 09 37

taller mekanikoa

**AUTO-LAN**  
C. B.

urrutira joan gabe  
talde berria  
zure zerbitzaria

Pelotari kalea, 5 ORIO      943 83 00 34



## 04. Almirantea Aldapen

San Martin auzoan dago Aldape baserria, agiri zaharren arabera Aganduru eta Errezabal baserriekin batera Orioko baserriarik zaharrenetarikoa. Izan ere, 1306 urterako Orion Aldape baserria bazela dioten dokumentuak badira.

Arkitektura herrikoiaren elementuekin antzinako baserriaren itxura mantendu nahi zen arren, egurrezko egitura guztia kendu eta barrua osorik berritu zuten kanpoko

hormak errespetatuz. Baserriaren atzeko horman, garai batean bi altuerakoa zela antzematen da eta antzina baserrira argia sartzen uzten zuten leiho txikien arrastoak ere badaude.

Garai batean babarruna, artoa, tomatea... landatzen zituzten Aldapen, Orioko plazara saltzera eramateko eta esnetarako eta haragitarako ganadua ere bazuten. Orain, ordea, etxerako barazkietarako baino ez dute baratza.

Orioko baserriarik zaharrenetarikoa izanik herriko bizitzan parte hartze garrantzitsua izan duten semeak eman ditu Aldapek; besteak beste kontzejuko kide eta zinpekoak.

Ez ziren nolana hiko bizilagunak ez, eta Aldape baserriari Almirante Urdaire

izena ere eman izan diote. Garai batean, Aldapen, Donostiatik Oriora zetorren bidea, San Martin basiliza eta Oria ibaiaren bokalea piratengandik zaintzen zuen gudaroste bat egoten omen zen han. Madrilgo Ontzi Museoan dagoen *Registro de Marinos de Guipúzcoa* agirian aipatzen da, hain zuzen ere, Almirante Urdaire Orioko Aldape etxeko semea zela Indietako ibilbidean parte hartu zuena eta Zacatecaseko diruzaina izan zena.

Bada agiririk Guda Karlistan Alfonso XII.aren aldeko gudarosteak Orioko hiribilduan kalteak sortu zituela dionik, tartean baita Aldape baserrian ere.

ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA: ZEHAZTEN |







# Herria nagusi mahai inguruan

Maiatzaren 5ean, ostegunarekin, egin zen KARKARAK antolatutako mahai ingurua. Hauteskunde bezperan egiten den hirugarrena da eta, orainoan ere, alderdi guztiei luzatu zitzaien gonbita. EAJ, Bildu, Orain eta PPK baiezkoa eman zuten. Aralarrek baiezkoa eman bazuen ere, ezin izan zuen Igor Larrartek etorri azken momentuan. PSE-EEko Jesus Rodriguezek ezezkoa eman zigun, euskaraz egingo zelako. Bi ordu eta laurden iraun zuen mahai inguruak: erdia KARKARAK prestatutako galderak erantzuten eman zuten lau zerrendaburuek, eta beste erdia herritarren galderei erantzuteko erabili zen. *Bilduri hauteskundeetan parte hartzen uzten ez badiote zer?* galdera ere egin zitzaien alkategaiei; baina gauean bertan baiezkoa eman zuen Auzitegi Konstituzionalak eta, hori dela eta, galdera horri buruz esandakoa ez dugu jaso. Xabier Sukia aritu zen moderatzaile, beste behin, eta ondo maneja zuen lema, baita ziaboga zailenetan ere.

## Zergatik eman beharko genioke botoa zure alderdiari?

**Jon Redondo:** Botoa eskatzeko hiru arrazoi ditut:

1. Alderdiak erakutsi duen kudeaketa gaitasuna. Batez ere, Euskal Herrian, azken 35 urteetako eta azken bietara arte eraman duen kriterioa.

Udalean ere gauza asko egin ditugu. Krisi garai honetan Gipuzkoan bost edo sei udal izango dira zorrik gabe, horietako bat Orio, eta finantza aldetik herririk saneatua gurea da. Lau urteotan 10 milioi euro gestionatu ditugu eta EAJk Eusko Jaurlaritzatik eta Foru Aldunditik beste 32 milioi euro bideratu ditu Orioko proiektuetarako.

2. Alderdiaren nortasun propioa, abertzaletasuna. Azken 35 urte hauetan erakutsi dugu herria aurrera eramateko lanean aritu garela, eta beste komunitateekin alderatuta, ikusten da, askoz ere bizi-kalitate hobea dugula hemen. Egunez egun egiten dalana, alderdi koherente bat gara eta hitza betetzen dugu.

3. Aurkezten dugun taldea. Alderdia pertsonen osatzen dugu eta 16 laguneko talde potentea aurkeztu dugu. Horietatik 10 independenteak dira, taldera haize berria dakartenak. Bestalde, gauden krisi egoera honetan, Udalean esperientzia dugun beste bost lagun ere bagaude.

Garrantzia ematen diogu Orion egin beharreko proiektuetarako beste erakundeekin, Aldundiarekin, izan beharreko elkarlanari. Horretarako, Udalean eta Aldundian alderdi bat egotea gobernatzen ezinbestekoa da.

**Miriam Uranga:** Gure taldea ez da alderdi politiko bat. Gu aukera berria gara, plataforma gara, oriotarrak gara, gaur egungo egoera politikoarekin aspertuta gaudenak.

Etengabeko sokatira da hau, alde batera eta bestera, eta herria non gelditzen da?

Nahi dugu klase politikoak daukan desprestigioarekin bukatzea. Udalaren irudi ona galdu egin da; jendeak ez du bere burua Udalean irudikatua ikusten eta horren adibide da hauteskundeetako abstentzio altua.

Beraz, gure plataformatik nahi duguna da Udala herriaren zerbitzura jartzea. Bada garaia Udala izan dadin herriaren zerbitzari eta ez soilik agintari.

Ez gatzoz karrera politikoa egitera, herriaren onurarako lan egitera baizik. Gure funtzionamendua herritarren partaidetza zuzen eta aktiboa oinarrituko da, non edozein herritarrek parte hartzeko eskubidea izango duen eta bere iritzia kontuan hartuko diren. Udalak herritik sortuta joan behar du gora, ez alderantziz.

Plataformaren ordezkari bat naiz eta atzetik 20 laguneko talde bat daukat. Gure funtzionamendua batzar orokor batean oinarritua dago, baina azpibatzen diren lantalde irekiak, izango dira. Herriaren osotasuna partekatua izan nahi dugu.



**Antxon Ibargoien:** Botoa, alderdiarentzat baino niretzat eskatzen dut. Independentea naiz, alderdiak aurkezteko eskatzen dit eta nik hala egingo dut.

Jonek esandako guztiak ez dira hain garbiak. Orio ez dago gaizki egin, baina obrak daude egiteko, lehentasuna duten obrak, eta haiek egin balira zenbateko zorraz izango genuke? Kiroldegian behin sartu nintzen eta ez naiz berri joan, obra egin beharra dagoelako; kanpina ere hantkaz gora dago.

Niretzat botoa eskatzeko honakoa da nik emango dudana arrazoiak: Nik Orio asfaltituz egutzen dut eta sekula ez dugu askatasunik izan. Lehen Elizak zapaltzen gintuen, Elizak ederki ihes egin du frankismoaren kolpetik, baina barrenean egon zen; azken finean faxismoa Eliza da. Ezkerra ere hori da. *Boto de pobreza* egin daude, itxura egiteko, baina gero, besteak are eta pobregoa ikusi nahi dituztenez, besteak zapaltzen ematen dute denbora.

Orio askatu egin behar dugu, askatasuna eman behar diogu herriari eta hori jendeak egin behar du, norbanakook. Euskal Herrian ez gara norbere nortasuna ateratzen hasi eta ez daukagu multzoan joan beharrik. Faxista da esaten duena gurekin edo gure kontra, eta bakarrik zergatik ibili?



**Beñat Solaberrieta:** Herriak aldaketa merezi du eta gu alternatiba gara. Arloz arlo diagnosis egin dugu, arlo bakoitzeko adituekin bilerak egin, ondorioak atera eta horren arabera ekintza plana egin dugu. *Zifrak* entzun ditut; baina herritarrak non daude? *Hitza betetzen da* entzun ditut; baina zeinena?

Bilduk talde eraginkor, gazte eta langileak, lan egiteko estilo berria planteatzen du. Herriaren gaitasunean sinesten dugu eta hori da gure taldearen oinarria. Herriko talde eta adituz osatutako eta ondo koordinatutako aholku batzordeak eratu ditugu; galdeketak egin gai klabeetan; harreman naturalak izan oposizioarekin, Udaleko langileekin, teknikariek. Interes kolektiboak pertsonalen gainetik jarriko ditugu.

Mankomunitatean lehen izan ginen erreferente izatera iritsi nahi dugu: tailer okupazionalak, kosta tailerra...

Herri ordenazioan herriak ezin du egon %100 inizatiba pribatuaren esku, ekimen publikoek inizatiba hartu behar dute.

Herriko eragileen parte-hartzean oinarritutako kultura, aisialdi eta kirol plangintzak antolatuko dira. Ekintzaileek protagonista izan behar dute. Hausnarketaren ondorioak herrian islatu direla ziurtatzeko erreminta da Udala, herritik Udalaren bitartez.

Orio etorkizunera begira jarri nahi dugu, bere potentziala zein den aztertu eta arrauna eta festa gastronomikoez gain, dituen altxorrei ahalik eta zuku gehien atera. Nazioan egin den planteamendu baten oinarria da Bildu, ez Orion isolaturik sortu den zerbait. Independentziaren alde egingo dugu; baina, era berean, Orioko ongizatearen alde. Udalarik freskotasuna eman behar zaio. Idea berriak ezartzeko garaia behin-goz iritsi da.

**Nahi duguna da Udala herriaren zerbitzura jartzea. Bada garaia Udala izan dadin herriaren zerbitzari eta ez soilik agintari**

## Azpiegituren dagokienez zein iritzi duzu azken lau urteotan egindakoaz. Zer falta du oraindik Oriok? Zer bultzatu behar da?

**Miriam:** Ez naiz hasiko zer egin diren zenbatzen; sobera ezagutzen dituzue. Baina azpiegituren horiek hala egitea derrigorrezkoa al zen? Ez da nahikoa autopistako zubiarekin, eta ibaiaren beste aldean beste zubi bat behar dugu? 10 metro igo behar dugu geltokian eta erreztatu igogailuak funtziona dezan? Kiroldegi atzeko gune berria egiteko zein kirol elkarteri eskatu zaio aholkua? Parke berri ugari dago, baina ez litzateke hobe parke gutxiago eta bat behintzat estalia egitea?

Alkateak 2010ean esan zuen Kultur Etxea txiki gelditu dela eta hutsune hori bete-ko zuela. Hondartza kokapen egokia iruditzen zaizue, eta zein ezaugarri dituen? Herriari aurkeztu zitzaionean proiektua itxia zegoen. Kultur ekipamendua behar da, baina horrelakoa eta hor?

**Ez daukagu mantenu politika egokirik. Herriak esan dezala zer behar duen, horrela bere sentituko ditu azpiegituren eta hobeto zainduko ditu. Eraikin berriak bai, zaharrak ondo zaindu eta gure sentitu**

Azpiegituren mantenuari buruz ere bada zeresanik. Kiroldegia gaizki dago, nahikoa da Balea kaleko fatxada ikus-tea. Arraun Elkartearekin ere gauza bera pasa zen eta hori da mantenu politika egokia ez daukagulako. Herriak esan dezala zer behar duen, horrela bere sentituko ditu eta hobeto zainduko ditu. Eraikin berriak bai, zaharrak ondo zaindu eta gure sentitu.

**Antxon:** Monstruosidadeak egiten ari gara. 5.000 bizilagun dituen herrian 25.000 edukiko balitu bezala ari gara azpiegituren arloan.

Arraun zentroarekin hori pasatuko da. Inork kalkulatu du haren mantenua zenbatekoa izango den? Hura garbitu, txukundu, zerbait hautsiz gero konpondu... Eraikina egingo da, argazkirako zinta moztuko da inaugurazio ekitaldian, hargatik behar bada norbaitek botoren bat gehiago jasoko du, baina hura mantentzeak bere aurrekontua du, arraunak dituen kostuak aparte, noski. Kiroldegiaren egoerari buruzko guztia esana geratu da.

Bestalde, parkeak, nire us-tez, gehiegi egin dira. Itxurazkoak eta ondo ekipatuak, baina umeek jostatzen duten bitartean bakarrik ez dira egoten, beraz, gurasoak egiteko toki bat behar da. Nahia-gu nuke kontzentratu balira parke edo jolas guztiak toki gutxiagotan eta hobeto egituratu izan balituzte.

Azpiegituren harira aurretik ere eskatua daukat, geologiak utziko balu, eliza azpian auditorioa egitea musika entzuteko. Teknikoki aukerarik balego, zulatuko genuke; goia utzi, orain bezala, gurtza katolikoarentzat eta behea musikasarako.

Txanka-hondartza bidean berritze lanak eginda, lautada ederra geratu da behetik gora goazela ezkerretara eta han rokodromoa, plaza bat... egingo nuke.

Lasarte eta Orio arteko autobus lotura egingo nuke, besteak beste, jendea hondartzara etortzeko.

Gauza horiek egin behar dira, baina beti aurrekontuei begiratuta, herrian zenbat bizilagun garen jakinda. Bestela ondorengoak egingo duela, eraikinak eta azpiegituren presaka egin beharrik ez dago; denon artean egingo ditugu gero bada ere.

**Beñat:** Interpretazio zentroa eta turismo bulegoa egin dira, baina emaitzek ez dituzte espektatibak bete; Teknikazio Zentroa doanekoa dela saldu arren, Madrili oparitu zaizkio lurrak eta kontzesioan daude; aparkalekuak badaude, baina beharrak asetzeko lain ez. Zergatik ez tren geltoki inguruan aparkaleku bat egin?

Orion egin diren azpiegituren kanpo finantzaketa bidez egin dira, proposamenak beste administrazioetatik etorritak. Geltokiaren jarraipena egitea Udalarik zegoen, baina hutsune logistikoak ditu. Portu berria kofradiak proposatu, sustatu eta bultzatu zuen eta Udalak onartu. Jaur-laritzak orain dela 10 urte onartu zuen EAJ agintean zela. Autopistako sarrera ere egin da, denok bultzatuta. Proposamen propioak gutxi, besteenak gehienak eta Udalaren eskumenetan zegoena ondo kudeatu gabe.

Proiektuen azterketei eman nahi diegu garrantzia. Dirua dagoelako proiektuak egin beharrean, proiektuak defendatu eta gero bilatu diru iturriak.

Gaur egungo ekipamenduen berritze eta mantenu egokia da garrantzitsua ez berriak sortzea.

Bizikletentzako bidegorri sare baten proiektua ere badugu, baina horretarako ezinbestekoa da saihesbidearen lanak aurreratzea.

Azpiegituren egin bai, baina mantendu? Transparenzia, herritarrekin kontrastatzea eta proiektuen definizio egokiak dute garrantzia.



**Jon:** Honakoak egin edo bultzatu nahi ditugu: garrantzitsua saihesbidea da. Eguzero 6.000 auto pasatzen dira Oriotik eta saihesbidea egin behar da legealdi honetan, Aita Lertxundiko bizilagunei bizi-kalitatea emateko.

Beste proiektua zaharren egoitza da. Eguzeko zentroa eta etxe tutelatuak dauzkagu, baina egoitza falta da eta Aldundiarekin harremanetan gaude. Egoitza horretan eguzeko zentroa izatea aurreikusita dago, jende autonomoarentzat apartamentuak eta, Udalarentzat kosturik ez izateko, Aldundiaren bidez egiteko helburua dugu.

Aizperroko industriaguna beharrezkoa da oriotarrek han lan egin eta aberastasuna bertan gelditu dadin.

100etik gora etxe babestu egin nahi ditugu eta, batez ere, alokairukoak bultzatu.

**Eguzeko zentroa eta etxe tutelatuak dauzkagu, baina egoitza falta da eta Udalarentzat kosturik ez izateko, Aldundiaren bidez egiteko helburua dugu**

Ludoteka ere egin nahi dugu Kultur Etxe atzeko lokaletan. Jendeak horren beharra dagoela esan digu-eta.

Legealdi honetan 500dik gora aparkaleku egin dira eta horretan segi behar dugu batez ere Pelotari, Goiko kale eta Eusko Gudari inguruan beharra dago eta lur azpikoak egin nahi genituzke.

Kiroldegia berritu behar da: gimnasioa handitzeko eta ur termalak jartzeko eskatu digute; kanpina eraberritu eta *bungalow* jarri; parke estaliak egin...

Kanposantuan horma-hilobi gutxi geratzen ari da, beraz, handitu egin beharko da.



**Duela lau urteko mahai inguruan gai garrantzizkoa izan zen gaztediarena. Geroztik Gaztelekua ireki du Udalak eta gaztetxea sortu dute gazteek. Zer egin behar du Udalak hemendik aurrera gazteen aisialdirako gune egokiak bermatzeko?**

**Antxon:** Gaztea zein da? Adinak definitu beharko dira. Beste lokal batzuekin ere hala pasa da eta orain lokal hori haientzat izango da, Udalarena edo denona izanik. Ez badira gauza horiek definitzen... Gazteak zer daude, zalaparta sortzeko? Ba ote dute erakusteko bezalako zerbait? Gazteen arrastoa azaltzen al da nonbaiten? Nik zalaparta besterik ez dut ikusi.

Gazteak ez dago instruitzerik, ez da ona. Bakoitzak bere bidetik joan behar du, gero berek elkartuko dira bakoitzaren zaletasunen arabera.



**Gazteak zer daude, zalaparta sortzeko? Ba ote dute erakusteko bezalako zerbait? Gazteen arrastoa azaltzen al da nonbaiten? Nik zalaparta besterik ez dut ikusi**

**Beñat:** Alkatetza gazteengandik urrun dago. Gazteek ezin dute izan molestatzera datozen horiek. Haien proposamenak entzun eta aztertu behar dira. Gazteek sortu dute dagoena eta gazteek daramate horren mantenua, gazteak dira protagonista. Udalak gazteei entzuteko jarrera azaldu behar du.

Txurumuskik kudeatzen du gaztelekua eta hala izaten jarraitu behar du. Talde horren esfortzua baloratu eta duten aisialdi proiektua bultzatu behar da. Gazte proiektuetan egin behar da lana eta Udalak hori aztertzen eta laguntzen egin behar du.

**Gazteek sortu dute dagoena eta haien mantentzen dute. Gazteak dira protagonista. Udalak gazteei erantzuteko jarrera azaldu behar du**

Gaztetxeari ere babesa eta laguntza eman behar zaio. Etxeluzeren egoera ezegonkorrari lehenbailehen erantzuna eman behar zaio Udalaren erantzukizuna delako. Hori gertatu bitartean, etxeak behar dituen segurtasun neurriei aurre egiteko baliabideak eskaini behar dira.

Beren aisia antolatzeke gaitasuna, kudeatzeko iniziatiba, beren artean harreman-tzeko nahia, edukiak, interesak elkarbanatzeko nahia eta beharra dute gazteek. Zergatik da hain zaila horretarako gune bat eskaintzea? Gazteek pentsatu eta sortzeko beldurra? Ez dira gauza bera Udalak kudeatzen duen zentro bat edo gazteek kudeatu eta Udalak laguntzen duen bat. Askatasunez sortu eta lan egiteko lekua nahi dute gazteek.

**Jon:** Gure proiektuen artean bat da gaztelekua indartzea. Lan txukuna egiten ari dira gaztelekuan eta baliabideak indartu, aisialdi proiektuei garrantzia eman eta laguntza ematea da guk daukagun iniziatibetako bat.

Daukagun ekipamendu faltadaldutokarena. Aurreikusitako dugu Kultur Etxe atzeko igogailuaren alboan, Udalak dauzkan lokaletan egitea eta, horrela, eremu txiki batean, herriko gaztetxoentzako ardatz bat eratuko litzateke: musika eskola, ludoteka eta kultur etxearen artean eta, plaza hori estalita, zergatik ez, txikienez leku egoki bat sortu.

Gazteak autonomo dira, autogestioa bultzatzen dute eta Orioko errealitatea da gazteak beren lokaletan dardela. Udalak bitartekaritza

**Asmoa da ludoteka igogailuaren alboan egitea. Horrela, herriko gaztetxoentzako ardatz bat eratuko litzateke musika eskola, ludoteka eta kultur etxearen artean eta plaza hori estalita txikienez leku egoki bat sortu**

lana egiten du gazteei lagunduz, bizilagunekin, ahalik eta harreman onena izateko.

18 urtetik gorako gazteen kontrolik ezin du egin Udalak, izan ere, gazteak errebelde izan behar du, bestela ez baita gazte. Udalak bultzatu behar du gazteei baliabideak erraztea herrian egiten dituzten ekimenak diruz laguntzeko eta horrela gazteek beren kasa kudeaketa egin dezaten.

**Miriam:** Gaztelekua, gaztetxea, helburua zein da? Gazteentzako bilgune bat sortzea, elkarren arteko harremanak eta kultura sendotzea eta aisialdirako denbora edukitzea.

Gaztelekua egin zen nerabeentzako, Txurumuskik gestionatzen du, baina Udalak gertutasunetik kontrolatu egin behar du, Txurumuskirekin eskutik helduta.

Ikusi dut gazteek nolako bide korapilotsua pasatu duzuen gaztetxea lortzeko. Gazteek Orion arrastoa utzi dute, partaidetza guztiz jorratu dute, denak elkartu dira, kolektibo bat egin, eta erabaki eta erakutsi dute argi eta garbi zer nahi duten. Salerosketa negoziatzen ari da, ordenantza sartuta dago Etxeluze eta geratzen den bakarra da kontua argitzea. Baina horren guztiaren aurretik Udalak ez zeukan konfiantzarik gazteekin? Gazteek erakutsi behar dute badakitela errespetatzen, badakitela eskubide eta betebeharrak batzuk dituztela, autogestionatzen, aniztasun politikoa mantentzen eta kultur aberastasuna eskaini behar dute herrian.

Herrian ludoteka falta da eta hori partaidetza oinarritutako zerbait izan behar da.

Neskak eta mutilak kirol eta kultura arloa bultzatu.

Ez lau pareta soilik, gure baliok transmititu behar dira, herrian harremanak eta integrazioa lortzeko.



## Lau urte hauetan protagonismo berezia hartu du hezkuntzaren gaiak Ikastolarekin izandako gorabeherak direla eta. Zer balorazio egiten duzu eta zer proposatzen du zure alderdiak kontu honi dagokionez?

**Beñat:** Hezkuntza eskaintza osatua eman behar dugu. Bi ikastetxe daude eta biak babestuko ditugu.

Orioko herriak Ikastolaren hitzarmenaren aldeko jarraera erakutsi du eta hitzarmena berreskuratu eta egonkortu egin behar da. Horrek ez du esan nahi beste hezkuntza proiektuak babestuko ez direnik.

Hezkuntza eragileen arteko mahai bat sortu behar dela ondorioztatu zen hezkuntza jardunaldietan eta hala izan behar da. Hezkuntza eragileen arteko ezagutza, komunikazioa, elkarlana beharrezkoak dira Orioko haur eta gazteek heziketa integrala jaso dezaten. Ez bakarrik Ikastolan eta Zaraguetan, baita esperientzia eskolan, musika eskolan, Txurrumuskin... ere.

**Hezkuntza eragileen arteko ezagutza, komunikazioa, elkarlana beharrezkoak dira Orioko haur eta gazteek heziketa integrala jaso dezaten. Ez bakarrik Ikastolan eta Zaraguetan baita esperientzia eskolan, musika eskolan, Txurrumuskin...**

Hezkuntza etorkizuneko erronka estrategikoa da. Gazte formatuak behar ditugu, nazioartera begira egongo direnak, teknologia berrietara egokitzen joango direnak. Euskal Herriko izaera eta nortasunarekin bat datorren herri curriculumak sortu behar dugu eta hezkuntza eragileen laguntzaz egingo dugu.

**Jon:** Hezkuntzaz hitz egiten dugunean eragile ezberdinak dauzkagu: mojak, haurreskola, herri eskola, ikastola, musika eskola, kirol taldeak, esperientzia eskola... Irakas-kuntzan Eusko Jaurlaritzak du eskumena eta Udaloi dagokiguna da eraikuntza publikoen inbertsio eta mantentzea, gure kasuan haurreskola eta Zaraguetan eskolarena.

Hezkuntza on bateketorkizuna bermatzen du. Garbi daukagu Orioko lau ikastetxeekin hitzarmena sinatu behar dugula eta, bakoitzaren errealitatea eta ezberdintasunak ikusita, laguntza hori eman behar diegula daukagun kompetentziak aparte, ezinbestekoa ikusten baitugu hezkuntzan inbertitzea.

Datuak hor daude. Muntoko plana onartu genuen, lurren zesioa egin genion eta Ikastolari eraikuntza berrirako 1.070.000 euro eman zitzaizkion. Haurreskolan, goiko partean, obrak egin genituen eta Zaraguetan ere egin ditugu hainbat inbertsio: komunak, lurra... Garrantzitsua da baita ere 16 urtera arteko irakaskuntza. Gaur egun, Ikastolan daukagu eta gustatuko litzaziguke eskola publikoan ere aukerazitea.

Musika eskolak ere lan eskergea egin eta hezkuntzan ere aportazio handia egiten du eta faltan sumatzen ditugu entseguak eta egiteko instalazioak eta hori zen kultur ekipamenduaren barnean sartzeko gure ideietako bat.

**Miriam:** Hezkuntzarako laguntzak ematea ez da gastua, inbertsioa baizik.

Azken urte hauetan, Ikastolaren gorabeherak direla eta, min handia egin du Orioko familia askotan gai honek. 2008an eskutitz bat iritsi zen Ikastolara esanez 2006an udalbatzarrean gehiengo absolutuz onartutako hitzarmena, unilateralki, alkate dekretuz, hausten zela. Ikastolara ume asko joaten dira eta garrantzi handia du Orion.

Ikastola hasi zen gauzak egiten: 1.613 sinadura, eragileen babes, H bandera pila bat balkoietan... Nola liteke Udalak, alkateak eta bere alderdiak, entzungor egitea herriaren esan horri?

Guk parekotasuna bermatzen dugu bi ikastetxeen artean. Kontentu eta harro behar genuke bi ikastetxe daukagulako, eta gurasook bat edo beste libre aukera dezakegulako. Biak aitzindariak dira: 1971n Ikastola izan zen euskarazko eredu zabaltzen hasizena eta 1988-89an Zaraguetan eredu elebiduna apurtzen aurrena, D eredu soilik eskaintzen zuten eskola publikoa. Orduan ikasle ginenak gaur egun guraso gara eta horren lekukoa hartu behar dugu. Bi ikastetxeetako umeek elkarrengandik gertuago, integratuago behar lukete. Beraz, denek laguntzak berdinduz jaso behar dituzte ikastetxe eta maila guztietan eta baita kultur eta hezkuntza eragile guztiekin ere.

**Antxon:** Redondok lehen esan du Udalak ez duela zorrik, beharbada Ikastolari kendutako diruetatik etorriko ziren diruak. Nik ez dakit lehen zergatik ematen zitzaien eta orain kendu. Ez alderdi batek ez besteak herriari ez dio banatu, *yo me lo guiso y yo me lo como*, baina hori ez du Udalak bakarrik egiten Ikastolak ere bai, eta besteak ere...

Nik aniztasuna nahi dut baita hezkuntzan ere eta hirugarren bat etorriko balitz nahiago, hortik etorriko litzatekeelako ezberdintasuna. Orain daukagun hezkuntza ezkerretik dator. Badirudi dena emanez gero, dena ikasten dutela, baina hori ez da egia. Ikasleari ailegatzen den tokiraino lagundu behar zaio eta tartean gehiagorako gai direnak agertuz gero, hari bultzatzea behar zaio, batek marxtaxar dezan eta besteek atzetik segi. Erreleboa hartuko diote; batek egin eta besteek aprobetxatu.

**Nik aniztasuna nahi dut baita hezkuntzan ere eta hirugarren bat etorriko balitz nahiago, hortik etorriko balitzake ezberdintasuna**



## Euskararen egoera nola ikusten duzue. Zer egingo duzue Orioko euskararen arnasmunea sendotzeko?

**Jon:** Orio herri euskalduna den zalantzarik ez daukagu inork. Garbi daukagu euskararekin etxetik hasi behar dugula. Errealitatea da hizkuntza gurea eremu txiki batean hitz egiten dugula eta konpententzia moduan daukagu erdara. Etxetik eta administrazioetik euskara bultzatu behar da.

Udalaren ikuspegitik jarraitu behar dugu daramagun politikarekin. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak orain dela gutxi esan du Gipuzkoako udalen artean euskara politikarik onena Oriokoa dela eta Euskal Herriko 66 herriren artean ere bigarren jarri zuen Bermeoren atzetik. Hori lana ongi egiten ari garen seinale da.

Euskararen bada arlo bat jorratu eta indartu beharrekoa: etorkinena. Etorkinei baliabideak eman behar dizkiegu euskara ikasteko. Gure hizkuntza ikasten duten heinean integrazioa errazago lortuko dute eta horren aldeko apustua egin behar da.

**Euskararen bada arlo bat jorratu beharrekoa: etorkinena. Etorkinei baliabideak eman behar dizkiegu euskara ikasteko**

**Miriam:** Orio naturalki euskaraz bizi gaitezkeen leku bat da. Euskara aldetik inflexio-puntu batean bizi gara. Demonstratu da, bai merkataritzan eta baita udaletxean ere, kudeaketa euskaraz egin daitekeela. Euskarako eragile nagusiek hausnarketa bat egin dute non gauden, nora goazen... eta ondorioak atera, laburbildu eta jendeari helarazi behar dizkiogu.

Bestalde, Orioko arnasmunea babes bereziko euskara eremu izendatu beharko litzateke eta horretarako araudi minimo bat egin: anbulatorioan, enpresetan, kiroldegian... euskara eskubideak bermatzea; hika berreskuratzea; etorkinei euskara irakastea. Eusko Jaurlaritzak Aisa bezalako programekin helduengana iristen da, baina 12-14 urte artekoentzat ez dago ezer, uste dute ikastetxeetan egindakoarekin nahikoa dela; mintzalaguna programa alternatiboak... horrekin lortu behar dugu kanpokoak euskararen munduan integratzea.

Udalaren azken balorazioan agertu da euskararen erabilerrari dagokionez %73 tik %63ra jaitsi garena eta batik bat helduengatik (25-64 urte). Partaidetzan oinarritutako funtzionamendua dugunez hori guztia lortu behar genuke euskararen alde herri-tik sortutako erabaki batetik.

**Antxon:** Nire ustez, orain gehiegi dabil euskara. Ez diot batere erabili behar ez denik, baina euskara erabili behar du norberak bere onerako, ez kulturarentzat.

Herria aske izango da berak borondatez egiten badu, ez gainerik inposatzen baldin bazaio. Proba egin behar da presioa pixka bat jaitsita. Hainbeste urtean emaitzarik izan ez bada, jendeak nahi ez duelako da.

Ume bat izanez gero, kontzientzia karga emango lidake eskolara euskaraz ikastera bidaltzea. Ingelesa ikastera bidaliko nuke. Orain Facebook, Twitter... dauzkagu eta horiek notiziak beste hizkuntza batean ematen dituzte. Militantzia gehiegi dago hezkuntzaren harira hizkuntza erabiliz. Presioa jaitsiko nuke.

**Herria aske izango da euskara bere borondatez egiten badu, ez gainerik inposatzen bazaio. Proba egin behar da presioa pixka bat jaitsita**

**Beñat:** Euskararen politika onenatarikoa omen da, baina badago non hobetua udal-etxetik hasita. Orio euskararen arnasmunea dela esaten da, baina kalean ez da hainbeste hitz egiten euskaraz. Garaia da euskararen gaia era epelean lantzeari uzteko, Udaletik neurri zorrotzagoak hartu behar dira.

Bilduren planteamendua euskara modu transbersalean lantzea da. Euskarak erabaki eta gai guztietan egon behar du presente. Euskaraz ikasteko beharra erakutsi behar diegu ez dakitenei eta dakitenei, berriz, euskara erabiltzearen garrantzia zein den transmititu behar diegu, batez ere kirolean eta lagun artean, uste dugulako horiek direla ahulgune nagusiak euskararen erabileran.

Erabat euskaraz funtzionatuko duten guneak eratuko dira: Udala, udaltzaingoa, merkataria... Hauentzat laguntzak bideratuko dira ikastaro formak, beren egitekoa euskara hutsean egin ahal izan dezaten.

Euskaraz sortzen Udaletik hasiko gara. Txosten tekniko eta ofizialak euskaraz sortuko dira eta behar izanez gero itzuliko dugu gaztelaniara. Astakeria da Orion euskarari eta gaztelaniari tratamendu bera ematea.

Gure proposamena: Orion euskaraz bizitzeko helburuarekin, adin tarte eta jatorri ezberdineko pertsonengana heltzeko, irratia bat sortzeko asmoa dugu, Euskarazko Orioko Irratia.





**Azaldu ezazu beste alderdiek urte hauetan egin dutenetik zer iruditu zaizun ondo eta zergatik.**

**Miriam:** Nire taldeak bereizketa egin du: Gobernuan egon den alderdia, EAJ, eta gainontzekoak. EAJk gauza bat oso-oso ondo egin du: marketina, Orio Estilora eslogana daukana. Kontuak ere biribilak; superabita, Gipuzkoako solbentzia perkapita handiena... Baina Zaharren Babeslekuko batzarrean babeslekura iristeko aldapa oraindik egin gabe zegoela esan zioten, eta iazko udal aurrekontuan dirurik ez zegoela, baina egingo zutela, esan zuen alkateak. Zaharrek eskatu eta gero gogorarazi egin behar dute horrelako gauza bat egiteko? Dirurik ez zegoen eta orain hain ondo daude kontuak?

Beste taldeen kudeaketari buruz ezer gutxi kaleratu da, eta ez gara gai ikusten balorazioa egiteko.

**Bukatzeaz den legealdi honetan elkartasunaren eta oposizio lanaren falta sumatu dugu Udalean. Uste dugu, legealdi honen ezaugarria izan dela adostasuna lortzeko izan den zailtasuna**

Ingurumen arloan ibili den jendeak eskertu du oposizio-ko zinegotzi batek interesa agertu eta haiengana gerturatu izana; bestalde, Aralarrek bidegorriaren gaia bultzatu du. Beste taldeek gaztetxeari emandako babes eta Ikastolari emandakoa ere ontzat hartzen ditugu.

Bestalde, elkartasunaren eta oposizio lanaren falta sumatu dugu. Uste dugu, legealdi honen ezaugarria izan dela adostasuna lortzeko izan den zailtasuna.

**Antxon:** Barruan egon ez garenok ez dakigu nondik hasi. Informazio ofiziala falta da. Bileretako edo udalbatzarretako aktak edo dokumentuak eskuratzeko aukera izan behar lukete interes dutenek.

Ez dakigu zeinek zer eta nola esan duen. Ez dago zertan herri guztiari eman beharrik, baina interes berezia dutenei bai.



**Informazio ofiziala falta da. Bileretako edo udalbatzarretako aktak edo dokumentuak eskuratzeko aukera izan behar lukete interes dutenek**

**Beñat:** Orio Estilora estratejiaren bidea esanguratsua izan da. Komunikabideetan etengabe agertu da Orioren izena. Baina propaganda hutsaren planteamenduari herriaren benetako izaeraren zigilua falta izan zaio. Herriaren, herritarren, parte hartzean oinarritutako Orio bat saltzeko beharra.

Orio estilo berri bat egin nahi du Bilduk, ez saltzen den hori. Oriotik eta Oriorentzat sortu nahi diren ekimenak.

Orio erakusteko ahalegina oso ona izan da, baina zer erakusten ari gara, tripa festa?

Parkinak egoki egin dira Dike eta Anibarko portukoak eta ekipamenduak ere asko egin dira, asko eta handiak, baina zer gertatzen da mantenuarekin?



**Jon:** Eskerrak eman nahi dizkiet legealdi honetan parte hartu duten zinegotziei. Pentsakera eta idea ezberdineta-ko jendea ibili gara. Batzutan, izan ditugu liskarrak ere, baina bakoitzak bere ikuspegitik Orioren aldeko apustua egin du. 14 lagun aritu gara eta denak zoriondu nahi nituzke.

EB/Aralar zoriondu euskara alorrean, kultur aniztasunean eta bidegorriekin egindako lanarengatik eta Iñaki Gartzia merkataritza arloan egindakogatik eta txu-txu trenarengatik.

Eari eskertu nahi genioke kirol jarduerak bultzatzeko eta kirol ekipamenduak lortzeko egindako lana.

EAEk bertako nekazaritza produktuekin, baratzeen ordenantza aurrera ateratzen edo kanpineko azterketarekin egindako lana ere aipagarria da.

PSE-EEk parkeak aurrera ateratzeko egin duen lanak ere merezi du aipamena.

Bukatzeo, gure alderdiko zinegotziak ere zoriondu nahi nituzke.



**Lau urtez gurekin bildu gabe, hainbat eta hainbat oztopo jarri ostean eta diagnosi bat egin eta gero, bizkarra ematen jarraituko al diozu herriko gazteriarri? Beraz, zergatik segitzen duzu esaten dirua emango duzula, hori eskatu ez zaizunean?**

**Jon:** Nik uste dut zer bait egin dudala gazterian; azkena, gaztetxea ordenazioan sartzea izan da. Guk beti eskatu duguna erakunde bezala eratztea izan da, horrela, Udaletik dirulaguntzak jaso ahal izateko. Hala ere, uste dut, guk apustua fuerte egin dugula eta horregatik ordenazioan sartu genuen duela bi hilabete inguru Etxeluze etxea.

**Uste dut, guk apustua fuerte egin dugula eta horregatik ordenazioan sartu genuen duela bi hilabete inguru Etxeluze etxea**

—Jon Redondo

Nik uste dut lekuarekin aurrrera goazela. Baina, lekuaz gain, baliabideak ere behar dira, tartean baliabide ekonomikoak, herrirako gauzak egin ahal izateko. Hori jarritzen dugu, hori hartu nahi ez duenak, horretarako libre da.

**Orion Babes Ofizialeko hainbat etxebeztza egin dira, baina noiz egingo dira alokairu sozialekoak?**

**Jon:** Lehen esan dugu, eta zuk eta biok hitz egin izan dugu horren inguruan, Orion lehenengoz alokairu sozialaren

inguruko batzorde bat eratuko dugula Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean. Oro har, denok ikusten dugu behar hori, eta datozen lau urteotan gauzatuko da. Hitzarmen bat daukagu Eusko Jaurlaritzarekin gure lurra uzteko, eta hori aurrekontuetan onartuta dago eta, horren trukean, haiek eraikuntza egingo dute. Hor, ondoren, zozketa egiten da eta, beraz, 2013rako edo izango genituzke etxebizitza hoiek.

**Antxon:** Nik aurkeztutako idatzi bati erantzunez, uste dut, gainera, lehenengoa izan nintzela, Arartekoak esan zidan konstituzioaren aurkakoa ez ote den Babes Ofizialeko etxeak modu horretan ematea. Konstituzioak etxea izateko eskubidea dugula dio, baina ez propietatean, hori patrimonioa hobetzea dela, eta hori inondik inora ez dago egiterik. Udala eraikuntza-enpresa bihurtzea baino ez da lortzen horrela. Asko garestitu dute etxebizitza politikariek.

**Beñat:** Babes Ofizialeko etxebizitzak eta alokairu sozialekoak aztertuko ditugu, baina herriko etxe hutsen egoera zein den aztertu beharra dago. Asko dira hutsik dauden etxeak eta horien alokairua kudeatzeko Udalak lagundu egin behar du, gazteen beharrei aurre egiteko.

**Miriam:** Beñaten antzera, Orainek ere herriko etxe hutssei irtenbide bat eman behar zaiela uste du. 487 dira hutsik daudenak eta badira adi-

bideak, Donostian Alokabide esaterako, non nagusia eta maizterra harremanetan jarritzen diren tratua egiteko. Izan ere, Babes Ofizialeko etxeen zozketak batzuentzat poza eta askorentzat tristura baino ez du ekartzen.

**Orain dela hilabete batzuk Herrio Natur Taldea eta Orioko Surf Taldea bildu eta hitzarmen bat sinatu genuen, azken urteetan Orioko hondartzak eta batez ere hondarrak izan duen bilakaera txarra salatze aldera. Herri mailako arazo bihurtzen ari denez, zein borondate duzue gai honi aurre egiteko datozen lau urteetarako?**

**Antxon:** Hau barra berria egin zen moduan egin izanak ekarri duen arazoa da. Baina horri buelta emateko, diru asko behar da, eta Udalak ez du dirua hori gauzatzeko. Izan ere, herritik kosteatu behar harko litzateke, hondartza, herritarrek disfrutatzen dutelako %100.

**Beñat:** Herritar denok hondartza erabiltzen dugunez, azterketa bat burutuko dugu hondartzaren benetako ego-

era ezagutzeko. Bi figura behar dira horretarako: erabil-tzaileak eta adituak: Herrio eta Surf Taldeaz gain, profesionalak ere ekarriko ditugu. Baina guztiekin elkarlanean.

**Jon:** Eusko Jaurlaritzara joan ginen adituen laguntza eske, honen inguruan gehiegi ez genekiela konturatuta. Han, teknikariek, oro har, kosta guztian ematen ari zen fenomeno bat zela esan ziguten. Ez ginen gustura geratu, eta Kostasera jo genuen. Han ekintzaren bat egiteko eskaera egin, eta hondartzaren malda kendu genuen: bi aste-tan berriz ere itsasoak bere kasa jarri ziguna. Azkenik, Aztikoengana jo genuen, eta haiek ere eman ziguten aholkua, naturari uzteko egiten. EAJk Madrilen duen ordezkariari adierazi diogu kezka, eta Ministerioari datorren urterako partida bat eskatu diogu hemen zer bait egin ahal izateko.

**Miriam:** Guk ere azterketa bat egin nahi dugu hondartzaren inguruan, izan ere, herritarrek kezu direla nabaria

**Barra berria egin zen moduan egin izanak ekarri duen arazoa da. Baina honi buelta emateko, diru asko behar da, eta Udalak ez du hainbeste diru**

—Antxon Ibargoien



da, hondartzan sortzen den hautsa dela-eta. Baina, bestalde, barregarria egiten zaigun beste egoera ere badago: Orioko hondartza sekula baino hobeto dago, ISO 14001 eta ISO 9001 kalitateko zertifikatuak jaso ditu-eta.

**Jon, zuk hasieran esan duzu, besteak beste, abertzaleak zaretelako eman behar zaizuela botoa. Esaidazu zer egiten zenuen Juan Carlos La Donostiako Aquariuma inauguratzera etorri zenean hari ongi etorria egiten?**

**Jon:** Galdera horrek, nire aburuz, ez du batere zentzurik. Hara joan nintzen, Oriorekin harreman handia daukan pertsona delako hango zuzendaria, Vicente Zaraguetak, eta haren gonbita jaso nuelako. Harira joanda, abertzaletasuna eguneroko lanean erakusten dugulakoan nago. Ideologia ezberdinak izan

**Euskal Herria maite dugunok gara abertzale, eta nik uste dut gauzak bakean hobeto lortuko ditugula, konfrontazio, borroka eta halakoak sahiestuta**

—Jon Redondo

arren, Euskal Herria maite dugunok gara abertzale eta, nik uste dut, gauzak bakean hobeto lortuko ditugula, konfrontazio, borroka eta halakoak sahiestuta. Tamalez, az-

ken 35 urte hauetan ez dugu bake hori eduki, baina badut esperantza laster bakea izango dugula, eta gauza gehiago lortuko ditugula.

**Jon, Kartelen kontua aipatu da, udaltzainekin arazoak izan ditugu, kultur mahaia osatzea proposatu da... Orain, bat batean, Orio Estilorako kartelak nonahi ikusi daitezke.**

**Jon:** Kartelak jartzen dituenak badaki non jarri behar dituen, handik kanpokoak kendu egiten dira. Adibidez, nire etxe azpian atzo kartelak baziren, baina gaur goizerako kendu dituzte garbitzaileek. Hor egin behar duguna da Zarautzek hartu duen iniziatiba bera jarraitzea. Hau da, leku batzuk jarri ordez, panel batzuk prestatu kartelak bertan jarri ahal izateko. Herri garbi bat nahi dugu, eta ahal den neurrian biak uztartu behar ditugu.

**Miriami galdetu nahi diodana da ea Udaleko hauteskundeetara aurkeztu eta nolatan azaltzen duzuen zuen burua apolitiko bezala. Zer da marketing estrategia bat? Jon, EAJk duela bi legealdi izandako bera izango al du?**

**Miriam:** Apolitiko hitza erabili genuen unean ez genuen modu egokian erabili. Esan nahi genuena da ez daukagula goi mailako irizpide politikorik, ez irizpide partidistarririk. Gure interes bakarra herria da, eta gure zerrenda aztertuz gero iritzi politikoa ezberdineko pertsonak gara. Herri antzeta gara eta gure plataforma horren isla da.

**Jon:** Juridikoki ez du heldule-

kurik Bilduren auziak. Aurkeztea ezinezkoa bazaie, aukera horri oihartzuna eman beharko zaio. Beren iradokizun eta lanak plazaratu, baina horri forma nola eman da ez dakidana. Duela bi legealdi nire alderdiak zein jarrera hartu zuen ez dakit.



**Jon zerk bultzatu zaitu Ikastolak eta Udalak zuen hitzarmena zure borondatez apurtzera? Nola dago egungo egoera?**

**Jon:** Hitzarmena 2006an sinatu zen eta bi urteko iraupea zuen. Legealdiko lehen aurrekontuak zirela uste dut 2008koak eta hor mahaian ziren gainontzeko alderdiak ez zeuden ados, EAJk eginiko zerbait zela esanda eta ez zutela hori onartuko. Zein da arazoa? Bada, ez gara hitzarmen berririk adosteko gai izan. Hau da, 2010eko uz-

tailean gehiengo minimo bat jarri da ados, baina ez gara guztiak konforme. Plenotik igaro behar zuen erabaki bat zela esatean, gertatutakoa ikusi ostean, ez dut zalantzarik, baina unean juristek Alkate Dekretuz egiteko gomendatu zidaten. Lau ikaste-txeekin akordio bat dago,

sinatzea espero dugu, eta hauteskunde aurretik pleno bat konbokatzeko aukera ere badago, eta hori da asmoa. Idatzizko harremana 2006tik 2008ra bakarrik egon da, eta harremanak ez dira eten, bestela ez genuen

**Akordio bat dago, sinatzea espero dugu, eta hauteskunde aurretik pleno bat konbokatzeko aukera dago**

—Jon Redondo



Muntoko eraikina egingo. Kontua da, laguntzeko modu ezberdinak daudela. Guk lau ikastetxeen aldeko apustua egin dugu.

**Zeharo harritu naiz, ez dakit ondo entzun dudana. Jon, ikastolaren hitzarmena apurtzerako garaian beste taldeekin hitz egin zenuela esan al duzu?**

**Jon:** Esan dudana da, batzordean aurrekontuak agertzean, ikastolaren partida aipatzean, zuek ez zenuela onartu nahi izan aurreko hitzarmena EAJk bakarrik osatu zuelako. Eta hortik aurrera, ba ez ginen gai izan ados jartzeko.

**Erraustuak igotzen ari dira eta, bestalde, ehorzten direnak familiako panteoietan sartzen dira. Horregatik diogu guk ez dela beharrezkoa.**

—Beñat Solaberrieta

**Azpiegituren gaitan, Babes Ofizialeko 100 etxebizitzatik gora egingo direla esan duzu Jon. Nik dakidala, Munto eta Dike eraikitzen direnean, Orion ez da lur eraikigarririk geratuko. Eta bi plano horietan Udalak 80 etxe egiteko asmoa du. Nondik ateratzen dira 100 etxebizitzak?**

**Jon:** Udalak badauzka lurrak etxebizitza gehiago egiteko, Abaromendi eremuan. Etxebizitza tasatuetan 80 m-ko etxeak dira. Baina dagoen eskaerarekin, 50 etxebizitza beharrean, txikiagoak diren 60 m-ko 70 egingo dira, denak gehituz gero 100 horietara iristen gara. Dena den, aurretik aipatu diren alokairu sozialeko etxebizitzak egingo dira, Dikeko gunean, hori baita gure apustua.

**Orioko Plazan agertu zen onartutako proiektuen artean kanposantuaren handitze proiektua onartu zela, baina geroz eta jende gehiago errausten da. Zein datu dituzue proiektua justifikatzeko?**

**Jon:** Proiektua aurreko legegalditik dago. Estudio bat egin dugu horren inguruan eta herriko enterradoreari galdetu diogu, besteak beste, eta nitxoan eskaera badagoelakonturatu gara. Egunen batean aukera hori galduz gero, zer? Ez da kapritxozko gauza bat, baizik eta beharrezko zerbait da.

**Beñat:** Nik baditut hemen datu batzuk dagokion eragilearekin egon ostean eta, erraustuak progresiboki igotzen ari dira eta, bestalde, ehorzten direnak familiako panteoietan sartzen dira. Horregatik diogu guk ez dela beharrezkoa.

**Lauontzako galdera. Auzitegi Konstituzionalean enpate tekniko dago. Zer pasatzen zaizue burutik? Orion Bildu legala balitz, Udalean zein eratan eragingo dio Auzitegi Konstituzionalaren erabaki honek?**

**Antxon:** Neri ez dit ez berorik ez hotzik sortzen. Herriak aukeratu beharko ditu eta herriaren esanetara egon.

**Beñat:** Zein ondorio? Oriok behar duen gauza garrantzitsu bat pluralitatea da. Gu ez bagina bertan egongo, hori galduko luke herriak.

**Jon:** Adituek hor esan dutenaren arabera, bi aukera ziztuzten eta osoko plenoaren esku utzi izanak Bildu hauteskundeetan izango dela pentsatzera narama. Herriko bozgorailu bat hankamotz geratuko litzateke ez egonda, eta herria hankamotz geratuko litzateke.

**Miriam:** Berri pozgarria da momentuz. Ondorio garrantzitsuena: hauteskundeak demokratikoak izango direla, parte hartzaileak. Eta botoak ez dira lapurtzen, galdu ala irabazi egin behar dira.

**Jon, duela gutxi Toki Alai Elkartean 4. urteurrena zela eta, ekitaldi bat egin zenuten plazan. Bertan esan zenuen kontuz ibili behar genuela botoa ematerako garaian, Bilduri eman ez gero, dirua galduko genuela eta. Guk ez daukagun informazioaren bat al daukazu? Jende hau gezurretan ari al zaigu? Eta ba al da kontrako kasurik? Hau da, EAJ kendu eta hobeto doakion Udalik?**



**Jon:** Kasu konkretu bat aipatu nuen, Zumaiakoa, bertan baitaude EA eta EAE-ANV batera Udala gobernatzen. Azken lau urteetan 3 milioi euroko zuloa egin dute, udaleko langileak %43 gehiago direlako eta hori ezin da mantendu. EAJ egon eta orain beste alderdiren batek kudeatzen duen Udalen bateko berririk ez daukat.

***Kasu konkretu batean aipatu nuen, Zumaiakoa, bertan baitaude EA eta EAE-ANV batera Udala gobernatzen. EAJ egon eta orain beste alderdiren batek kudeatzen duen Udalen bateko berririk ez daukat.***

—Jon Redondo



**Azken hausnarketa bat.**

**Beñat:** Herriarekin elkartu gara eta herriaren beharrak aztertu ditugu arloz arlo eta horrekin egin dugu plana. Oriotarren bidez nahi dugu herria, oriotarrak erabaki dezatela egin beharrekoa. Lana da gure hitza.

**Antxon:** Hemen inteligentzia behar da. Ez taldean egitea, baizik eta gauzak ongi egitea da beharrezkoa.

**Miriam:** Kostata baina Orain hauteskudetan da. Bildu ere hor egotea nahi dugu, herriko parte delako. Antxon bezalako pertsona bati ateak irekitzea, foro ireki horietan bada-kigulako asko eman dezakeela. Eta Joni eskatu herrikoia goazateko, Bildu ez badago herriak bertan jarraituko duelako.

**Jon:** Nik nire taldeari egindako lana eskertu beharra daukat. Hauteskundeei begira guztiak bertan izango garela espero dut, gaurko lauak, PSE-EE eta Aralar eta onenak irabaz dezala. Eta garaileari, zorte on.



**Beharrak aztertu ditugu. Oriotarren bidez nahi dugu herria, oriotarrak erabaki dezatela egin beharrekoa**

—Beñat Solaberrieta

**Hemen inteligentzia behar da. Ez taldean egitea, baizik eta gauzak ongi egitea da beharrezkoa**

—Antxon Ibargoiien



**Joni eskatu herrikoia goazateko, Bildu ez badago herriak bertan jarraituko duelako.**

—Miriam Uranga

**Guztiak bertan izango garela espero dut, gaurko lauak, PSE-EE eta Aralar eta onenak irabaz dezala**

—Jon Redondo



# Festaren ondoren, ajea

**A**steburu luzearen ondoren ajea ez da nolana hikoia. Astelehen goiza da, hilak 16 ditu, eta moila bazter honetatik larunbatekoa gogoratzeari ekin diot.

Egia esan, sekula ez naiz saltsera izan eta, aurten ere, ez naiz Balearen Eguneko antolatzaileen artean izan. Beraz, eguna biribila izateko lanean jardun diren guztiei eskerrak eman nahi dizkiet. Nik herritar gisa gozatu egin nuen. Dena perfektok!

Bueno, dena ongi joan zenik ere ezin esan, bi egitarau izan baitziren. Bildu, bildu, bildu! Ez da besterik entzuten bazterretan... Eta Orion, bildu beharrean, banatu egin gara festak antolatzerakoan. Nik Txosna Batzordeak antolatutakoarekin egin nuen bat, eta horretaz hitz egingo dut.

Ikastolako pergolan egindako bazkarian hotzikara sentitu nuen. Zein ederra den hainbeste lagun, haur, heldu, zahar eta gazte elkarrekin ikustea!

Aspaldian ez nintzen hain herri bazkari jendetsuan izan. Hainbat eta hainbat lagun bazkaritara joan ezinik gelditu ziren txartelak agortu egin zirelako. Sanikolasetan, frontoiko bazkarian, gutxi batzuk elkartu ginen eta orain, tokirik gabe. Zerbait aldatzen ari da...

Sabela bete eta eztarria busti ondoren, kantatzen hasi ginen ikastolan bertan lehenik, eta herriko kaleetan, gero. Trikitilarien laguntzaz, Balearen bertsoak kantatu genituen Orioko karriketetan. Afaritarako tartea hartu genuen indarrak hartu eta festarekin jarraitzeko. Batukadako taldea agertu zen eta haiei segika, ia

**Diru gutxi gastatuta ere, herrian giro paregabea sortu daiteke**

konturatzerako, Gaztetxera heldu ginen.

Zorionak Gaztetzekoei ere. *Triki ta ke* taldearen kontzertua ere bikaina.



Eta, kontzertua amaitzean zela, hainbat artista igo ziren taula gainera irrintzia botatzeko.

Erakutsi zuten maila ikusita, txapelketa bat ere egin daiteke. Ez ziren artista bakarrak izan. *Aukeran* dantza taldekoek agurra eskaini zioten ezkontzean zen bikote bati. Zorionak zuei ere! Dena amaitu zela uste genuenean, Gaiton filarmonika jotzen hasi...

Eta, horrekin batera, etxera. Behingoagatik, etxea gertu daukat gaur eta ohera noa. Aurretik azken hausnarketa, diru gutxi gastatuta, herrian giro paregabea sortu daitekeela. Eta espidifen bat badaezpada ere mesanotxean. Ea, ba, hilaren 23an ere biharamuna dugun. Hala bada, Orion udaberriaren udal berria daukagunaren seinale izango da.

**iñaki argazkiak caperochipi**

*ezkontzako asmarik bai?*

www.ikapero.com/ezkontzak  
659378751  
ikapero@ikapero.com

**KOLON TXIKI**

Herriko Enparantza, 4  
ORIO  
Tel. 943 83 00 44

**SARASUA ERRETEGIA**

**Plater bereziak** - Arrain zopa  
- Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel: 943 83 00 05 / 943 13 25 32

**Orioko Herri Ikastola**

Guraso Kooperatiba  
ABESLARI KALEA, 8  
TEL: 943 83 47 04  
FAX: 943 13 09 38  
orio@ikastola.net  
www.oriokoikastola.net

**Lizaso dekorazioa**

Eusko Gudari, 41  
Tel: 943 83 00 44

**Portu ERRETEGIA**

Santa Eireka Auzoa, 69  
943 89 11 04  
20009 AIA-ORIO

**LOBETXU JETETXEN**

Eusko Gudari, 18 Tel: 943 83 00 07

tel/fax: 943 89 00 69  
Bibala kalea 4. 28.100 ERPLATZ

**URBIDE**

ITURGINTZA, BEROGINTZA  
GASA, BAINU, ERAKUSKETA

**XABIER URRETABIZKAIA**

- Instalazio elektrikoak
- TDI antenak
- Atezin automatikoak

60 urte xerbitzua ematen

943 83 17 74  
Arriatzaile, 31 **ORIO (ORIO)**

# Um-ohorerik gabe, hobeto!

**A** itaren etxea defendatuko dut, eta baita amarena ere, bien izerdiaz asetzen baita munstro hipotekarioa. Eta defendatzeaz gain, hobe garbituko banu, egunero harrikoa egin eta arropak zabaldu. Ok. Goazen ba.

Gazteoi sarri, biharko egunak sortzen digu kezka, eta horrek orainaz zeharo ez gozatzeraz bultzatzen gaitzake. Etorbizuna eraikitzearen ardura omen dugu. Ados. Goazen pausoz pauso. Nik, nahiago dut erantzukizun hori umore pixka batez hartu, konpromiso edo betebeharrak huts bezala sentitu baino.

Eta lagun bati adar joka lehengo batean, *Hi, zer masturbatzen haiz, maitasunez edo maiztasunez?* Adiskideak jarritako aurpegiatik, okerra zeharo, *maiztasunez*, ondorioztatu nuen. Sutan laguna. *Hori dek um-ohorea motel!* Nire artean. *Ok, nahikoa Gaiton, hau Karkara dek, seriotasun pixka bat!*

Etorbizuna eraikitzeko, autokritikak behar luke oinarri. Auto kritika, 110 km/h-ko muga jarri eta astoei 200 zaldiko autoak saltzea. Horri *mas-turbo-zioa* terminoa ezarri dio Etxepare Institutuak. Hondartzar garbitzeko ekimenetara joateko,

kilometrotxoa autoz egitea. Benetako autokritika. Edo tabernako tertulia sortzaileetan (gora igande gauak!) parekidetasuna aldarrikatzea, eguneroko jardun luzeaz nekatuta, ama sukaldea garbitzen ari den bitartean. Edo sistema hausteko plan alternatiboak sortzen aritzea, haxix kanutoak kontrako aldera tiratzen dizunean. *Ha! Tururu!*

Ekintzak burutzeraz pasa beharrean gara, aski garatutako kontzeptu eta helburuak denboraren herdoilak jan ez ditzan. Ekintzak edo *hik-intzak/n?* Nigandik hasita, aski adituak baikara gure generaziokoak ondokoari errua bota edo bera lanean jartzen.

A! Eta Zaharren Egoitza eta Gaztetxea bizilagun. Kanak eta kañak. Tuteak eta asanbleak. Auzolana? Euren euskara entzute hutsetik hasita, izango genuke zer ikasi. Eta ziur, edadetuek ere gozatuko luketela, zorionez, herriko gazte askoren jardun ona ikusi eta ikasita, ikasketa prozesu hori bi norabidekoa izango bailitzake seguru.



Eta kezkatzen nau sortuko dugun ondareak, hondarrak ere bai, baina debekatu egin dit *Gurruk* hemen kontu hori ateratzea! Ikusten dut nola 2040.

urtean, batzuek oraindik Orio *urdir, berde eta horia* definituko duten, hiru kolore horiek, hoteleko paretek bezala, errepatotxo bat behar duten arren. *Konstrukzio* enpresak beharrean, *destrukzio*-koak sortuko dira, etxeak egiteko leku gehiago ez, eta egindakoak botatzetik aterako dutenak bizimodua...

Azkena, jaun-andreok, aurrerantzean osaba Bin Ladenen ilobek ez dute pagarik izango, *demokraziak* hil baitu justizia egiteko, *Bonanzaren* pelikuletan bezala. Eta putzura bota. Obama garaile. Osama uretan. Hossana, zeru goienetan!

Dagoeneko 1,4 eurotan gasolina eta kafe ebakia, 1, 15. Ama, gost irailerako! Eta gainean dugu uda. Hondartzan *Nivea* usaina. Alegia, lotsati, *ni ala bea?*

Bizi fin!

## Nire alkatea

**S** ei aukera, sei. Badakizue aukerak berarekin dakarrela nekea. Buruari bueltak eman eta eman galbiltza denok botoa nori eman erabaki nahian. Eskaintza handiak egiten dizkigute eta ez da erraza asmatzea.

Hara nire gustuko alkateak nolakoa izan beharko zuen:

Alkate euskaltzalea nahikoa nuke, euskalakaria, euskara maitatu eta, bihotzean ez ezik, ahoan ere izango duena, sinistuko duena euskaldun izatea dela Euskal Herrian eta munduan izateko berezko modua. Feminista ere izan behar luke, berdintasuna bultzatu eta biziko duena, ahul eta txikien babesle izango dena. Ekologista, porlana gutxitu eta arbolak eta erria zainduko dituen. Ezkerrekoa da nire aukera, zerbitzu publikoak eta horien kudeaketa publikoari lehentasuna emanez, denon dirua guztion mesedetarako erabili behar dela uste dudalako; gutxien dutenei lagundu eta ez betikoei dirua ematen jarraitzeko. Bakezalea da nire alkatea, eguneroko jardunean besteen aurrean errespetuz eta gizalegez jokatu duena...

Horrela idatzita jarrita, dena errazago izango nuela uste nuen. Baina... oraindik buruan bueltaka dabilkit, eta hortxe ditut hauteskundeak ate joka.

**Etorbizuna eraikitzeko  
abiapuntua autokritikak  
behar luke. Auto kritika, 110  
km/h-ko muga jarri eta astoei  
200 zaldiko autoak saltzea**





# ORIO HIZKUNTZAK

Cambridge Unibertsitateko First Certificate eta Advanced azterketak prestatzeko taldeak ditugu

ISA GAITURAK...

Kontratudun langileentzat dohako ingeles eta frantses ikastaroak

Izena emateko, edo betebeharrak eta baldintzak jakiteko, hurbildu edo deitu, astelahanetik ostiralera, 17:00etatik 20:00etara.

Itxiondo papealekua 8  
943 05 88 26



## GaleBask S.L.

Berrikuntzak  
Gremioen arteko koordinazioa

838 610 349  
Tel./Fax: 943 134 717  
galebask@hotmail.com

www.galebask.com  
Kaia Nagusia, 2 -bajo  
20810 ORIO



FISIOTERAPIA - Geriatría - Análisis de Natación - Winesoterapia  
NUTRICIONISTA - Geriatría - Acupuntura

## sinergia

investigación fisioterapia

Itxai ondo, 1, behe-nina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95



Sukalde eta bainuen erreformak

# XANTI MUJIKA

## Igeltseritza

699 46 76 21  
943 13 10 37



## LURDES

ALFARMECASA

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24



## TANATORIO ZARAUZ

EUROFUNERARIAS TALDEA

Hilata eta zerbitzu orokorrak

- \* Denaia eta probintziako ospitaleetan
- \* Aldiarako zerbitzua
- \* Belatorio gelak
- \* Koroiak, eskalak, tranziakioak...

Araba kalea, 35 - Zarautz

Tel. 943 88 48 37 | Fax: 943 88 48 41  
e-mail: hanzp@hiztanpif.net

## LUXARBE

igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnor: 943 63 59 00



# kutxa



Elle eta Oihane  
Aldaketa eta  
www.kutxa.com

## azkue

### karrozeria

Ubegun industrialdea, 7 20809 Aia-Orio

Tl/fax: 943 83 51 86 Camocerasazkue@hotmail.com

Be apantegia

## MARIJO

Nekea eta munitzentzat

Eusko Gudari, 8 - Bejo  
Tel. 943 13 47 29  
ORIO

eduzitegiak

## ANTILLA

julekuek

Nagusiakalea, 2 - Tel. 943 83 29 00



## TAILER MEKANIKOA

# MANTEROLA S/L

INDUKZIOAK GARBIKATU

Santiago ezuzoa - 18 postakutxa  
Tel. 943 830 743  
Fax. 943 134 634  
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net  
70 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM

AENOR  
R  
150 9000

Esteraiko balbula  
AENOR kalitate ziurtagiriaduna



# Gaia emanda Zer diozu Aiako auto lasterketaz?

Aian auto-lasterketa antolatu dute laugarren aldiz. Hori dela-eta, horri buruzko iritzia eskatu dugu. **Biak ikusita, zeinek du arrazoi zuretzat?**

## Automobilismoa beharrezkoa da

**G**aur egun errepidean bizia salbatzen duten segurtasun gailu-tariko asko eta asko, automobilismo lehian egin diren probetatik atera dira; adibidez: segurtasun-uhalak, ABS balazta sistema, trakzioaren kontrola eta autoaren oreka kontrolatzeko ESP sistema. Automobilismoa, kirol lehiakorra izateaz gain, saiakuntza-bankua ere bada, fabrikatzaileek urte batzuen barruan gure autoetan izango ditugun produktuak probatu eta fintzen dituzten lekua da-eta.

**ZIA**

Automobilismoa gazteak askatu ahal izateko leku eta agertoki bat da. Beharrezko segurtasun neurriekin bolantean duten trebetasuna erakusteko ezinbestekoa. Toki ideala.

Trafikoari irekitako errepideak eta industrialdeak ez dira leku egokiak gazteak, asteburuetan, jai giroan, elkartu eta haien idoloen mailara iritsi nahian probetan ibiltzeko. Duten trebezia erakusteko toki egokia errepide zati kontrolatua da, trafikoari itxita, larrialditako zerbitzu guztiekin eta Automobilismo

Federazioak eta Eusko Jaurlaritzak eskatzen dituzten baimen egokiekin.

Automobilismoak duen beste erakargarritasuna da masa-kirola izatea. Jende asko mugitzen du eta proba horiek egiten diren lekuetara toki askotako jendea etortzen da.

Horiek denek gure paisaiak, gastronomia eta herriak ezagutuko dituzte. Zaleentzat automobilismoari berari eransten zaion balioa da. Euskal Herrian egiten diren probetara parte hartzera edo ikustera etorri gero, gure lurrarekin gozatuko dute eta askok automobilismoari esker ezagutuko dituzte.

Arkaitz Iruretagoiena  
Autozalea

**Urte batzuen barruan gure autoetan izango ditugun segurtasun produktuak auto lasterketetan probatzen dituzte fabrikatzaileek**

## Zer ikusi, hura ikasi

**Z**ilegi al da instituzioetatik herri proposamena den orori babes eman eta ahalbideratzea?

*Ez al lirateke kontuan hartu behar ekimen horiek sustatzen dituzten giza-balioak edo, aitzitik, bultzatzen dituzten jokabide kaltegarriak?* Galdera horiek datozkit burura, idi-dema eta ehiza betiko kirolak diren herrian auto lasterketarena ere tradizio bilakatu nahian-edo, herriko goma-orro zale multzo bategen, aurten ere, Aiako igoera antolatu duela jakin dudanean. Eta, horren aurrean, giza balioen transmisioan helduok dugun erantzukizunaz aritu nahi dut lerrootan.

*Zer ikusi, hura ikasi* esaera zaharra aintzat hartuz gero, nekez garatuko dute gure seme-alabek ezereen gaineko kontzientzia egokirik ekologiaz edota elkarbizitzaz baldin eta geuk, guraso eta hezitzaileok, gure eguneroko jokabideekin eredu onik eskaintzen ez badiegu

Haurrek hiru eremuotatik jasotzen dituzte ereduak:

**BOGA**

*etxea* –senideak, telebista, internet-, *eskola* eta *kalea*. Baina hiru eremuotatik iristen zaizkien mezuak bat ez badatoz, arazoak izango ditu haurrak jarduera edo gertaera bat onuragarria edo kaltegarria den erabakitzeko. Zer esan nahi dudan honekin? Hauxe: Ez dudala nahi Aiako haurrek jasotzerik sekulako burrunba atereaz eta ingurugiroa kutsatuz, Aiako bideetatik barna autoa sekulako abiaduran eta modu arriskutsuan

gidatzea normala denik. Are eta gehiago gazteek kotxearekiko dependentzia handia duten herrian.

*Kirol* honetatik ezer onik transmititzen ez den uste osoa dut; errespetu guztiz, gaitzetsi egiten dut guraso aiar batzuen jokabidea, beren umeak ikuskizun horrekin disfrutatzea eramaten dituztenean. Baita Udalak proba baimendu izana ere. Aiako Udalak ekimen handia du, ekitaldi mordo bat antolatzen du urte osoan herriaren erakargarritasuna areagotzeko, eta erronka handiei ere aurre egiteko gai dela argi utzi du; horra hor Euskadiko itzulia, esaterako.

Agidanean, garai hauetan gehiegitxo kostatzen zaigu denoi norbait ezetz esan beharrak ekarri ohi digun egonezina jasatea.

Xabier Gaiton  
Aiako eskolako irakaslea

**Giza balioen transmisioan helduok dugun erantzukizunaz aritu nahi dut lerrootan**



Salatxok eraman du erakusleiho lehiaketako lehen saria. KARKARA

# Maila handiko erakusleihoak

## Kritika Erakusleiho lehiaketa

Balearen Eguna ardatz hartuta Herriko taberna eta dendetan

**E**z da erraza izan Balearen Eguna ardatz hartuta egin den erakusleiho lehiaketan irabazlea aukeratzeko.

Herriko erakusleiho guztiak maila oso altukoak izan dira. Batzuk orijinalagoak besteak baino, besteak balio handiko gauzekin...

23 denda eta tabernek eman dute izena. 3. sarirako lehia estua joan zen eta, azkenean, 100 euro, eta bi lagu-

nentzako bazkaria eta zirkuitu termala Zumintza ilea-paindegiak eraman du. Itsas-mendi izan da lehian harekin, bakailaoa garai batean bezala lehortzen zeukan jarrira, baina Zumintzak orijinaltasun handiagoa izan du.

Bigarren saria, orijinalena izan den Muxutruk loradendara joan da. Beren produktuekin, sarerik eta itsasgairik gabe, osatu dute erakusleihoak; adarrak, petaloak, loreak... erabiliz eta oso emaitza polita lortu dute. Horren ondorioz, 200 euro eta bi lagunentzako bazkaria eta termetako saria jaso ditu.

Sari nagusia, Salatxo tabernari eman diogu. Osotasune-

an dekoratu du taberna, oso txukun gainera. Balio handiko tresnak jarri dituzte eta irudi oso politak ere bai. Hori dela-eta han geratu da lehen saria: 300 euro eta bi lagunentzako bazkaria eta zirkuitu termala.

Besteetan denetik ikusi dugu. Batzuk sarea jarri baino ez dute egin, besteek balio handiko tresna eta altzari zaharrak jarri dituzte. Horiei guztiei sari bezala bi lagunentzako zirkuitu termala eman diegu. Hori bai, lehen hiru sariak baino ez ziren etorri sari banaketara... ea hurrengoan guztiak azaltzen diren.

UHAINA ATXOTEGI

**Ikasleak idazle**  
Larraitz Arregi

## Zakarrontzi gutxi aukeran

**J**ada amaitu dituzte kiroldegi atzeko kirol pistak; bi padeleko pista daude, teniseko bat eta futbol kantxa txiki bat. Oso ongi iruditzen zait herriarentzat horrelako gauzak jartzea, guztiok asko eskertzen baitugu, baina, egun hauetan, oso zakarrontzi gutxi daudela bertan konturatu naiz eta farolak berriz, nahi adina. Hori



ikusita, zakarrontziak farolak baino beharrezkoagoak direla iruditzen zaidala esan nahi dut. Izan

ere, farola gutxiagorekin nahikoa argi egongo litzateke, baina zakarrontzi batekin bakarrik ez da nahikoa. Bestela, hemendik egun batzuetara lurra zaborrez beteta dagoela kexatuko da jendea, baina pista guzti horietan zakarrontzi bakarra badago, zer egin behar dute? Beraz, hori ez gertatzeko, badakigu zer egin behar den.

**Farola gutxiagorekin nahikoa argi egongo litzateke, baina zakarrontzi batekin bakarrik ez da nahikoa**



## » INKESTA

**Zer iruditzen zaizu Erreboiloaren Festa?**

199 erantzun jaso ditu galderak. %28 alde agertu da, %66 kontra, %3ri bost axola zaio kontua eta %2k ez daki zer esan gai honen inguruan.

**HURRENGO GALDERA****Zer iruditzen zaizu egunero erabiltzen diren errepedietan auto lasterketak egitea?**

Erantzun ezazu [www.karkara.com](http://www.karkara.com) webgunean eta emailtza 301. KARKARAN argataratuko dugu.

## » OSPAKIZUNA

**50 urte; erraz esaten da, gero**

Eta hauen kasuan, esan eta egin! Inazio Arruabarrenak eta Ana Elizalde elkarrekin ezkondu zirela 50 urte egin dituzte maiatzaren 12an. Hori dela-eta familiak garai hartako bien argazkia bidali digu KARKARARA; horrekin batera, familiak berak eta lagun guztiek *zorionak eta urte askotarako* eder-eder bat eskaini nahi diete txoko honetatik Anari eta Inaziori.

## » ZORITXARRAK!

*Kartelak gaztelaniaz*

A izperroko horretan jarri dute iragarki bat, izugarria tamainaz, han egitekoak diren industrialde berri horretan pabiloiak erosteko gonbita egiten duena, gaztelania eder hutsean.

Garai hauetan horrelako kartelak jartzea ez da onartzekoa, non eta Orion.

Zalamea de la Serenan (Badajoz, Espainia) erabiltzen diren hizkuntz irizpide berberak erabiltzen dituzte batzuek Orioko arnagunean ere, eta hori salatzekoa da.

Kontseiluak nota ona jarri dio Orioko Udalaren hizkuntz politikari; baina, egin-dakotik ezer gutxietsi gabe, badugu oraindik zer hobetua! Bai, horixe!

**3B**  
INFORMATIKA-ZERBITZUAK  
680 997 600  
[lsb@informatikasb.com](mailto:lsb@informatikasb.com)  
tf/fax: 943 536 505  
[www.informatikasb.com](http://www.informatikasb.com)  
Joan Barbany

Abeslari kalea 4, 20810-Orio (Gipuzkoa)

**Zaragueta Eskola Orio**  
telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

**kutixi**  
kafetegia  
GOSARI GONDAK  
Aizgorria 5, 20810 Orio  
Tf: 943 13 78 17

943 83 09 86  
**KOASTA**  
Wifi zerbitzua  
Kopak, guri giro aparta...

**ASADOR XIXARIO**  
Ez duzu gustatzen? Baita, 27  
Tf: 943 530111 - 0102

**RAMIRO**  
argazkiak  
[www.fotoramiro.com](http://www.fotoramiro.com)  
[fotoramiro@fotoramiro.com](mailto:fotoramiro@fotoramiro.com)  
610 69 76 68  
943 83 10 48







KARKARA

# “Etxean bezala sentitzen naiz Orion, lantokiko lagunei esker”

## Juan Carlos Martínez Bertran

Sukaldaria

Tijuanan (Behe Kalifornia, Mexiko) jaioa da Juan Carlos. Aurpegi aski ezaguna da dagoeneko herrian, Xixario jatetxeko parrillan aritzen delako sukaldari gisa. 35 urte bete berri ditu eta, hobeto ezagutze aldera, jardun dugu berarekin hizketan.

### IKER GURRUTXAGA

*Tekila, sexua eta marihuana...* horixe dio kantu ezagunak. Baina Tijuanan hori baino askoz gehiago dagoela erakutsi digu Juan Carlosek.

**Tijuanan, parrandarako hiria.**

Hori da jarri zaion fama, baina, egia esan, estatubatuarrei esker, aukera berri asko dituen hiria bilakatu da. Industria berriak, konpainia handiak... lana ekarri du gure hirira.

Bere alde txarra ere badu mugan bizi-zeak. Droga asko mugitzen da gurean

eta horrek delinkuentzia areagotzen du. Baina, beno, hiritarrak abegitsuak dira.

### Noiz etorri zinen lehenengoz?

Kasualitatez etorri nintzen hona. Lehenengo bidaiari, duela lau urte, bi hilabetearako etorri nintzen, karrerako –gastronomian lizentziatua, *Culinary Art School* unibertsitatean– praktikak egitera. Hurrengo urtean, 4 hilabetez, iaz 5 hilabetez eta orain ia urte guztirako nago hemen.

### Gustura geratu zinen, ezta?

Bai, hala da, baina ez dut uste ni bakarrik nagoenik gustura. Nire nagusia, Luis Mari ere, gustura dagoelakoan nago, baita beste langileak ere, bestela ez dut uste berriz deituko lidatekeenik.

### Luis Mari kanpoan denean eta zu parrillan bakarrik, ardura handia da, ezta?

Egia esan, bai; baina eskerrak eman baino ez dut. Ez naiz bakarrik geratzen, Luis Mariren iloba etortzen baita laguntzera; baina, hala ere, niregan konfiantza handia duela erakusten ari dira hemen. Asko zor diot nagusiari.

### Oriorekin gustura?

Zalantzarik gabe. Hasieran ez da bat ere erraza Oriora moldatzea, jendeak erreparatu handiz begiratzen zaituelako. Baina, orain, etxean bezala sentitzen naiz, neurri handi batean lantokiko lagunei esker. Familia bat bezala dira niretzat.

### Alde handia batetik bestera, ezta?

Izugarrria da diferentzia. Hemen ez dut autorik, bakarrik nago, ez dut errutinatik ateratzeko aukera handiegirik, nahiz eta, azken aldian, Zarautz aldera zertxobait mugitu naizen... baina gustura nago, nahiz eta horrela bizitzea ez den batere erraza.

### Zein dira zure etorkizunerako planak?

Ametsa, sukaldari guztiena: jatetxe propioa izatea. Ez nuen sekula esperoko parrillan jardutea, eta oso pozik nago. Nire burua sukalde barruan ikusten nuen, su handien artean.

### Euskal gastronomian aipatzeko zeozer.

Sinpletasuna, batez ere. Ez da ia espezialirik erabiltzen, saltsak ere ez dira asko erabiltzen, baina kalitatea izugarria da. Ikusi besterik ez dago zenbat *Michelin* izar dituzuen inguruan. Bereziki zerbaitekin geratu beharko banu, bisiguarekin zalantzarik gabe. Hala ere, babarrunen eta tortillen falta sumatzen dut.

### Eta mexikarrean?

Takoak. Haragia, tipula, martorria eta saltsa min batekin eginak, asko gustatzen zait-eta janari beroa.

### Hemen pikante gutxi aukeran.

Hori da, eta niretzat janari bat ia-ia ez da janaria ez badauka pikanterik. Baina bat ohitu egiten da azkenerako. Tekilarekin ere antzeko zerbait gertatzen da, mexikar bat tekila gabe... ez da mexikarra.

» AZOKA

**Iragarkietarako txokoa.** Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

**Salgai**

■ Garaje itxia salgai Ibai Ondon. 21,70 metro koadro; 3 metroko altuera. 45.000 euro. Interesatuak 627 63 87 76 telefono zenbakira dei dezakete.  
 ■ Garaje itxia salgai Mendi-beltz futbol zelaiaren azpian. 20,67 metro koadro. Telefono zenbakiak: 646 28 99 07/630 37 0138.  
 ■ Volkswagen California salgai, 18.000 eurotan. 102 zp-2500cc. 2000 urtekoa. 242.000 km. Bidaia-tzeko prestatuta dago, besteak beste, bi ohe eta hozkailua ditu. Tf: 658 72 32 33.

**Erosteko**

■ Si bemoleko trikitixa erosiko nuke, egoera onean dagoena. 4 ahotsekoa izan

behar luke, gainera. Salduko lidakeenak dei dezala, mesedez, 652 73 51 41 telefono zenbakira.

**Errenta**

■ Gela bat alokatuko nioke etxea partekatu nahi duenari. Tf: 664 24 78 88.  
 ■ Etxea partekatuko nuke bakarrik edo laguntza beharrean dagoen emakume batekin. Tf: 695 63 96 04.  
 ■ Orion errentan hartzeko etxebizitza bila nabil. Dei ezazu 676 28 25 88 telefono zenbakira edo, lan orduetan, 943 83 15 18 telefono zenbakira.

**Lan eskaerak**

■ Edozein motako lana egingo nuke, goizez nahiz

arratsaldez. Josue. Tf: 609 77 78 94.

■ Neska euskalduna umeak zaintzeko prest, arratsaldez. Eskarmentua daukat. Interesatuak deitu 679 85 23 41 telefono zenbakira.

■ Desbrozadorekin lur-sailak garbitzen ditut. Prezio oneko zerbitzu txukuna. Tf: 697 75 01 96.

■ Neska arduratsuak etxeak garbitu edo edadetuak zainduko lituzke. Eskarmentua badauka. Deitu 600 74 56 86 telefono zenbakira.

■ Neska gazteak etxeak garbitu edo haurrak zainduko lituzke udan. Deitu 666 29 75 01 telefono zenbakira.

» ITSASOA

| EGUNA | ITSASGORA       | ITSASBEHERA     | ILARGIA |
|-------|-----------------|-----------------|---------|
| 20    | 05:22 eta 17:37 | 11:20 eta 23:50 | ☾       |
| 21    | 06:09 eta 18:25 | ___ eta 12:06   | ☾       |
| 22    | 06:59 eta 19:17 | 00:40 eta 12:55 | ☾       |
| 23    | 07:54 eta 20:14 | 01:32 eta 13:49 | ☾       |
| 24    | 08:56 eta 21:16 | 02:30 eta 14:51 | ☾       |
| 25    | 10:04 eta 22:20 | 03:34 eta 15:59 | ☾       |
| 26    | 11:08 eta 23:21 | 04:39 eta 17:06 | ☾       |
| 27    | ___ eta 12:02   | 05:39 eta 18:04 | ☾       |
| 28    | 00:15 eta 12:48 | 06:29 eta 18:52 | ☾       |
| 29    | 01:01 eta 13:28 | 07:12 eta 19:35 | ☾       |
| 30    | 01:43 eta 14:04 | 07:50 eta 20:13 | ☾       |
| 31    | 02:21 eta 14:38 | 08:26 eta 20:49 | ☾       |
| 01    | 02:58 eta 15:13 | 09:00 eta 21:25 | ☾       |
| 02    | 03:35 eta 15:48 | 09:35 eta 22:02 | ☾       |
| 03    | 04:13 eta 16:26 | 10:11 eta 22:41 | ☾       |

» ZAINTZAKO BOTIKAK

MAIATZA

- 20an, Larrañaga.
  - 21ean eta 22an, Mutiozabal.
  - 23an, Gallo.
  - 24an, Zulaika.
  - 25ean, Iriarte.
  - 26an, Larrañaga.
  - 27an, Mutiozabal.
  - 28tik ekainaren 3ra, Lasa.
- EKAINA
- 4an eta 5ean, Gallo.
  - 6an, Iriarte.
  - 7an, Larrañaga.
  - 8an, Mutiozabal.
  - 9an, Barrenetxea.

- **Azaldeg:** Urdaneta kalea, 8 943133183 Zarautz
- **Barrenetxea:** Gipuzkoakalea, 17 943832398 Zarautz
- **Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12 943832970 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16 943133814 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza 943830936 Orrio
- **Gallo:** Zigorria kalea, 17 943134019 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilar txo Enea 943132983 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41 943133994 Zarautz

» TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA-ZARAUTZ

|                 |             |             |             |             |             |             |             |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |
|-----------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| Donostia        | 5:47        | 6:17        | 6:47        | 7:17        | 7:47        | 8:17        | 8:47        | 9:17         | 10:47        | 11:47        | 12:17        | 12:47        | 13:17        | 13:47        | 14:17        | 14:47        | 15:17        | 15:47        | 16:17        | 16:47        | 17:17        | 17:47        | 18:17        | 18:47        | 19:17        | 19:47        | 20:47        | 21:47        |
| <b>Aia-Orio</b> | <b>6:11</b> | <b>6:41</b> | <b>7:11</b> | <b>7:41</b> | <b>8:11</b> | <b>8:41</b> | <b>9:11</b> | <b>10:11</b> | <b>11:11</b> | <b>12:11</b> | <b>12:41</b> | <b>13:11</b> | <b>13:41</b> | <b>14:11</b> | <b>14:41</b> | <b>15:11</b> | <b>15:41</b> | <b>16:11</b> | <b>16:41</b> | <b>17:11</b> | <b>17:41</b> | <b>18:11</b> | <b>18:41</b> | <b>19:11</b> | <b>19:41</b> | <b>20:11</b> | <b>21:11</b> | <b>22:11</b> |
| Zarautz         | 6:19        | 6:50        | 7:20        | 7:50        | 8:20        | 8:50        | 9:20        | 10:20        | 11:20        | 12:20        | 12:50        | 13:20        | 13:50        | 14:20        | 14:50        | 15:20        | 15:50        | 16:20        | 16:50        | 17:20        | 17:50        | 18:20        | 18:50        | 19:20        | 19:50        | 20:20        | 21:20        | 22:20        |

ZARAUTZ-DONOSTIA

|                 |             |             |             |             |             |             |             |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |
|-----------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| Zarautz         | 6:08        | 6:38        | 7:08        | 7:38        | 8:08        | 8:38        | 9:08        | 10:08        | 11:08        | 12:08        | 12:38        | 13:08        | 13:38        | 14:08        | 14:38        | 15:08        | 15:38        | 16:08        | 16:38        | 17:08        | 17:38        | 18:08        | 18:38        | 19:08        | 19:38        | 20:08        | 21:08        | 22:08        |
| <b>Aia-Orio</b> | <b>6:15</b> | <b>6:45</b> | <b>7:15</b> | <b>7:45</b> | <b>8:15</b> | <b>8:45</b> | <b>9:15</b> | <b>10:15</b> | <b>11:15</b> | <b>12:15</b> | <b>12:45</b> | <b>13:15</b> | <b>13:45</b> | <b>14:15</b> | <b>14:45</b> | <b>15:15</b> | <b>15:45</b> | <b>16:15</b> | <b>16:45</b> | <b>17:15</b> | <b>17:45</b> | <b>18:15</b> | <b>18:45</b> | <b>19:15</b> | <b>19:45</b> | <b>20:15</b> | <b>21:15</b> | <b>22:15</b> |
| Donostia        | 6:39        | 6:50        | 7:20        | 7:50        | 8:20        | 8:50        | 9:20        | 10:20        | 11:20        | 12:20        | 12:50        | 13:20        | 13:50        | 14:20        | 14:50        | 15:20        | 15:50        | 16:20        | 16:50        | 17:20        | 17:50        | 18:20        | 18:50        | 19:20        | 19:50        | 20:20        | 21:20        | 22:20        |

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com. Grisez dauden orduetan trenak daude asteburuetan.

» AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

|             |             |             |             |             |             |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |       |
|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|-------|
| Donostia    | 6:55        | 7:40        | 8:10        | 8:40        | 9:10        | 9:40         | 10:40        | 11:40        | 12:10        | 12:40        | 13:10        | 13:40        | 14:10        | 14:40        | 15:10        | 15:40        | 16:40        | 17:40        | 18:10        | 18:40        | 19:10        | 19:40        | 20:15        | 20:45        | 21:00        | 22:15 |
| <b>Orio</b> | <b>7:25</b> | <b>8:15</b> | <b>8:45</b> | <b>9:15</b> | <b>9:45</b> | <b>10:15</b> | <b>11:15</b> | <b>12:15</b> | <b>12:45</b> | <b>13:15</b> | <b>13:45</b> | <b>14:15</b> | <b>14:45</b> | <b>15:15</b> | <b>15:45</b> | <b>16:15</b> | <b>17:15</b> | <b>18:15</b> | <b>18:45</b> | <b>19:15</b> | <b>19:45</b> | <b>20:15</b> | <b>20:50</b> | <b>21:35</b> | <b>22:50</b> |       |
| Zarautz     | 7:35        | 8:25        | 8:55        | 9:25        | 10:25       | 11:25        | 12:25        | 12:55        | 13:25        | 13:55        | 14:25        | 14:55        | 15:25        | 16:25        | 17:25        | 18:25        | 19:25        | 19:55        | 20:25        | 21:00        | 21:45        | 23:05        |              |              |              |       |

ZARAUTZ-DONOSTIA

|             |             |             |             |             |             |             |             |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |
|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| Zarautz     | 6:45        | 7:15        | 7:45        | 8:15        | 8:45        | 9:20        | 9:45        | 10:45        | 11:45        | 12:45        | 13:20        | 13:45        | 14:20        | 14:45        | 15:20        | 15:45        | 16:45        | 17:45        | 18:45        | 19:45        | 20:45        | 21:15        |              |              |              |
| <b>Orio</b> | <b>6:55</b> | <b>7:25</b> | <b>7:55</b> | <b>8:25</b> | <b>8:55</b> | <b>9:30</b> | <b>9:55</b> | <b>10:30</b> | <b>10:55</b> | <b>11:55</b> | <b>12:55</b> | <b>13:30</b> | <b>13:55</b> | <b>14:30</b> | <b>14:55</b> | <b>15:30</b> | <b>15:55</b> | <b>16:30</b> | <b>16:55</b> | <b>17:55</b> | <b>18:55</b> | <b>19:30</b> | <b>19:55</b> | <b>20:55</b> | <b>21:25</b> |
| Donostia    | 7:30        | 8:00        | 8:30        | 9:00        | 9:30        | 10:10       | 10:30       | 11:10        | 11:30        | 12:30        | 13:30        | 14:10        | 14:30        | 15:10        | 15:30        | 16:10        | 16:30        | 17:10        | 17:30        | 18:30        | 19:30        | 20:15        | 20:30        | 21:30        | 22:00        |

Lanegunetan, grisez dauden orduetako autobusak pasatzen dira Urbiletik.

ASTEBURUETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

|             |             |             |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |
|-------------|-------------|-------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| Donostia    | 8:00        | 9:00        | 10:00        | 11:00        | 12:00        | 13:00        | 14:00        | 15:00        | 16:00        | 17:00        | 18:00        | 19:00        | 20:00        | 21:00        | 22:00        | 23:00        |
| <b>Orio</b> | <b>8:35</b> | <b>9:35</b> | <b>10:35</b> | <b>11:35</b> | <b>12:35</b> | <b>13:35</b> | <b>14:35</b> | <b>15:35</b> | <b>16:35</b> | <b>17:35</b> | <b>18:35</b> | <b>19:35</b> | <b>20:35</b> | <b>21:35</b> | <b>22:35</b> | <b>23:05</b> |
| Zarautz     | 8:45        | 8:45        | 9:45         | 10:45        | 12:45        | 13:45        | 14:45        | 15:45        | 16:45        | 17:45        | 18:45        | 19:45        | 20:45        | 21:45        | 23:15        |              |

ZARAUTZ-DONOSTIA

|             |             |             |             |             |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |              |
|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| Zarautz     | 6:45        | 7:45        | 8:45        | 9:45        | 10:45        | 11:45        | 12:45        | 13:45        | 14:45        | 15:45        | 16:45        | 17:45        | 18:45        | 19:45        | 20:45        | 21:45        |
| <b>Orio</b> | <b>6:55</b> | <b>7:55</b> | <b>8:55</b> | <b>9:55</b> | <b>10:55</b> | <b>11:55</b> | <b>12:55</b> | <b>13:55</b> | <b>14:55</b> | <b>15:55</b> | <b>16:55</b> | <b>17:55</b> | <b>18:55</b> | <b>19:55</b> | <b>20:55</b> | <b>21:55</b> |
| Donostia    | 7:30        | 8:40        | 9:40        | 10:40       | 11:40        | 12:40        | 13:40        | 14:40        | 15:40        | 16:40        | 17:40        | 18:40        | 19:40        | 20:40        | 21:40        | 22:40        |

Asteburuetan, autobus guztiak pasatzen dira Urbiletik. Grisez dauden orduak larunbatetako (lanegunak) zerbitzuei bakarrik dagozkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek darama. Zerbitzuei buruzko informazioa lortzeko zenbait bide daude: [www.landabus.com](http://www.landabus.com), Tf. 943 240114 sms-a 5280 zenbakira





Barkatu



arabat

# IREKI BIDEA EZKERRARI

BAKEARI  
EUSKARARI  
EUSKAL HERRIARI  
POLITIKARI



## bildu orio

[www.bildu.info](http://www.bildu.info)  
[www.facebook.com/bilduorio](https://www.facebook.com/bilduorio)



**bilduorioherria**

*aniketa behar du gure herriak*

goazen **zubiak** eraikitzen  
pertonatik pertsonara



BOZKATU  
VOTA



Jakin eta gaitz  
saber' herria'

ORRIO  
**ORRIO**



**ONENNA EMATEKO GARAIA**

**EL MOMENTO DE DAR LO MEJOR**